

Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (I): oinarrizko ezaugarri zenbait*

BLANCA URGELL
UPV/EHU

Abstract

In this paper, I will analyze some issues concerning bilingual lexicography that —as far as I know— have only been previously investigated in a subsidiary manner, namely: the use of models from other languages in the rise of new lexicography traditions and the influence of those models upon such traditions. We must bear in mind that in most —if not all— European languages the first works in this field were bilingual dictionaries in which the source language had a well established lexicographic tradition, such as the numerous Renaissance bilingual Latin-vernacular dictionaries, which were frequently based on medieval Latin models. It is worth noting that at each particular point in time and place, the source language is the one which holds the status of language of culture, so that it may be inferred that these languages serve not only as lexicographic models but also as lexical referents.

The case in point analyzed here —the Larramendi's Diccionario Trilingüe (1745)— and its model —the Diccionario de Autoridades of Spanish Royal Academy (1726-39)—, are specially significant since they were two cornerstones of their respective lexicographic traditions. The Trilingual was the first Basque general dictionary to be printed. Its publication came to be regarded as a foundational event for peninsular literary Basque and its influence during a century and a half is unparalleled in the history of Basque and its lexicography. Nevertheless, it is probably the least known amongst the Basque dictionaries as a result of the anathema which was levelled against it at the beginning of the XXth century.

In this paper we present the first of a series of studies of the dictionary's contents (size, number of entries) and we analyze some external issues (authorship, working methods) as well as some organizational questions (graphics, alphabetic organization) constantly bearing in mind the model of reference.

* Lan hau J.A. Lakarrak zuzendutako UPV 033.130-HA005/98 eta J. Gorrotxategik zuzendutako PI97/49 ikerkuntza proiektuen barnean kokatzen da.

0. Sarrera

“Hiztegi” hitza, euskaraz izan diren filologia inguruko berbetatik zaharretakoa dugu: lehenengo agerraldia 1665ean koka daiteke, Pouvreauren hiztegian, hain zuzen ere. Erabili, ostera, Etxeberri Sarakoak erabili zuen lehendabizikoz, baina hitzaren benetako zabalkundea, itxura denez, beste hiztegi bati zor zaio, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-ri, nahiz berak bereari —garaiak nola...— *Diccionario* izena eman zion. Jakinduri erakusketa hau, gaur egun edozeinek egin dezake, Mitxelena-ren *Orotariko Euskal Hiztegia*-ri esker. Berau irakurrita, gainera, aski ongi antzematen da batez ere XX. mendean erabiltzen ari den hitza dela, eta inpresio hau Sarasolaren *Maiztasun-hiztegia*-rekin berma daiteke, orotara 192 agerraldi jasotzen ditu eta. Sarasola beraren *Euskal Hiztegia*-n “hiztegi” hitzak “hurrenkerak jakin baten (gehienetan alfabeto hurrenkeraren) arabera sailkaturiko hitz bilduma” esanahia duela ikasi dut, azkenik.

Bost hiztegi aipatu eta, hala behar ere, bostak sartzen dira Sarasolaren definizioaren barruan. Haatik, aitortu behar da Pouvreaugandik Mitxelena gana eta Larramendigandik Sarasolagana, maiztasun-hiztegia alde batera utzita ere, alde handia dagoela, azal eta barne. Definizio lexikografikoa ez da gauza bat ondo ezagutzeko biderik onena —besterik genuke entziklopedian begiratuz gero, ziurrenik—, nahiz eta hura identifikatzen lagun dezakeen. Aipaturako hiztegien artean aurkitzen ditugun begibistako ezberdintasunak, baina baita euren antzekotasun guztiak ere, hiztegia den bezalakoa izan dadin egin duenetik datoz denak: bere historiatik. Hiztegegintzaren munduan ez gabiltzanok hiztegia gauza bakar eta bakuntzat hartzeko joera badugu ere —Sarasolaren definiziotik ez oso urrun—, hiztegiak elkarren artean oso ezberdinak izan daitezke, bai sinkronikoki, baita diakronikoki ere.

Hiztegien ezaugarri funtsezko bakarra “hitz bilduma” izatea da. Gainerakoa, eta guztiz “gehienetan alfabeto hurrenkeraren arabera sailkaturikoa” izatea, denborarekin itsatsi zaio, biltzen dituen hitzetara erabiltzailea erraz iritsi dadila lortzeko sortzen diren arazo teknikoen erantzun gisara (Quemada 1967: 321). Erantzuna edo, hobeto esanda, erantzunak ez dira bat-batean agertu, baizik eta mendeetan zehar garatuz joan. Europako hiztegegintzak, guri dagokiguna baino ez aipatzearren, Erdi Arotik honanzko bilakaera etengabea izan du, hasierako glosario latinezkoetatik gaur egungo CD-ROMeko hiztegietaraino. Artean, esan gabe doa hiztegegintza eragin duten gauza asko gertatu direla: lehen inprenta eta gero ordenagailuaren asmatzea; edo erabiltzaileak ikaragarri ugaltu zituen hezkuntzaren hedapena; edota latinaren beharakada hizkuntza bizien nagusitasunaren alde, esate baterako. Hiru gertakari hauetako bakoitzak —eta aipatu gabe utzi ditudanak, noski— hiztegegintzari, onura nabariekin batera, egokitzapen lan handia eskatu dio. Aldaketa bakoitzean, ostera, hiztegia ez da goitik behera eraberritu, ez eta hurrik eman ere: aitzitik, bere lehengo izaeraren hainbat ezaugarri gorde ditu, gehientsuenak luzaro, onerako zein txarrerako.

“Hiztegi” hitza geuretu dugu, hasieran esan bezala, eta hitza ez eze, azkenik, edukia bera geuretzera iritsi gara, duela hamabosten bat urtetik honantz sarrera eta bukaera, azalgaia eta azalpena, dena euskaraz daukaten hiztegiak erdietsi baititugu. Alabaina, hau oraingoz salbuespena da euskararen historian. Aurreneko hiztegi guz-

tiak erdara-euskara edota euskara-erdara hiztegiak izan dira: hiztegi elebidunak gehienbat, baina baita hirueledunak edo hirukoitzak (Larramendi, Azkue), laukoitzak (Etxeberri Sarakoa) eta are eleaniztunak ere (Joan Felipe Bela).

Argitaratzearen aldetik zori txarra izateaz —eta elebakartasunera pitin bat berandu iristean— kanpora, euskal hiztegi gintza, gainerantzean, Europako hainbaten paretuan ibili da XVII. mendeaz geroz, ez oso aurrera, baina ezta oso-oso atzera ere. Tartean ondu izan diren hiztegi guztiak, jakina, egoeraren seme-alabak dira: ez dira kasualitatez egin diren bezala egin, erdara(k) barneratuta dau(z)katenak ez daukatenak bezalaxe. Asmo jakin batekin egin izan dira hala, teknika jakin batzuekin, eta irakurle/erabiltzaile jakin batzuei zuzenduta, baita buruan edo betaurrean ereduren bat edo beste zegoela, barrukoa zein kanpokoa. Hauek bezalako xehetasunak bildurik —Lakarrak Larramendi aurreko hiztegi gintzaz bere tesian (1993) egin bezala—,¹ lehenengo euskal hiztegitik hasi eta atzo goizean kaleratu zen azkenekoraino, tradizio berezi bat zabaltzen da gure begien aurrean: euskal hiztegi gintza tradizioa, hain zuzen.

Euskal hiztegi gintza tradizioaz mintzatzerakoan, euskarari hizkuntza bezala eta Euskal Herriari herri bezala dagozkien berezko ezaugarri zenbaitez jantzia den zerbaiti buruz mintzo gara: euskararen izaerak eta historiak, egoera sozioekonomiko ezberdinek, kultur joerek, etabarrek baldintzatu duten tradizio batez, alegia. Baina, aldi berean, hiztegi gintza tradizio zabalago baten barnean kokatua dagoen zerbaiti buruz: Europako hiztegi gintzaren garapenak, gramatika ideien bilakaerak, etabarrek ere beste hainbesteko eragina, edo gehiago agian, izan dute —eta dute oraindik— euskal hiztegi gintzan.

Ez dago berez eta bere kabuz sortu eta hazi den lexikografiarik. Aitzitik, Europako hizkuntza askoren —halakorik izan zuten guztien— hiztegi gintza Erdi Aroan zehar garatuz joan ziren eredu latinen gainean eraiki zen.² Humanismo garaitik aurrera, hizkuntza arruntek lehentasuna hartzearekin batera, Europako hizkuntzen arteko loturak eta, ondorioz, euren lexikografiaren artekoak ere korapilatsu xamar bilakatzen dira: alde batetik, estatuen arteko erlazio politiko, komertzial edota kulturalek hiztegi elebidun edo eleaniztunak sortarazi zituzten;³ bestetik, hizkuntzaren batekin nolabaiteko hurbiltasun edo menpekotasuna zeukaten hizkuntzek haren lexikografiaren eragina pairatu zuten —edo profitatu, nondik begiratzen den— euren-

(1) Lana atalka ateratzen ari da argitara, Bibliografian ikus daitekeen bezala.

(2) Hizkuntza askotako lehen hiztegi handiek latina daramate ezker edo eskuin: Joan Esteve-ren *Liber Elegantiarum latina et valentiana lingua* (Venecia, 1489), Nebrixaren *Lexicon* (latina-gaztelania, 1492) eta *Vocabulario de Romance en Latín* (1495), Thomas Eliot-en *Dictionary* (latina-ingelesa, 1538), R. Estienne-ren *Dictionarium latinogallicum* (1538) eta *Dictionnaire français-latin* (1539), Jerónimo Cardoso-ren *Dictionarium ex lusitanico in latinum sermonem* (1562-1563) edo Alber Szenczi Molnár-en *Dictionarium Ungaro-latinum* (1604), adibidez. Sarritan latina-hizkuntza arrunta ordenako hiztegiak Erdi Aroko latinezko glosarioen zordun dira; adibidez, latina-gaztelania lehen hiztegi argitaratua, Alfonso Fernandez de Palencia-ren *Universal vocabulario en latín y en romance* (1490), Papias-en itzulpen fidela baino ez da (Niederehe 1986: 12-13). Eta hizkuntza arrunta-latina ordenako hiztegiak, beren aldetik, hasieretan bederen alderantzizko ordenako hiztegien bihurketak dira sarri; adibiderik onenetakoa jadanik aipatua dugu, Estienne-ren bi hiztegiak, hain zuzen (ik. Bray 1989b: 1792-1793).

(3) Adibide bereziki interesgarri eta, bestalde, sakonki landutako bat eskaintzen digu Osselton-ek (1973), nederlandera eta ingelesaren arteko erlazioez.

ri abiada zein bultzada emateko.⁴ Bestelako hizkuntzen lexikografietan —baita berean ere, jakina—⁵ eragin gehien izan duten hiztegien artean kokatu behar ditugu Nebrixaren *Lexicon* (1492) eta *Vocabulario de Romance en Latín* (c. 1495); hauek atera orduko, lexikografo askok haien eredia era batera edo bestera baliatu zuten hiztegi berriak, batzuetan lehenak, egiteko: Gabriel Busa-ren *Lexicon* (latina-katalana, 1507; ik. Colon & Soberanas 1986: 60-79), *Vocabularius Nebrissensis* (latina-frantsesa, 1511-1541; ik. Lépinette 1992), Richard Percyvall-en *Bibliotheca Hispanica* (gaztelania-ingelesa-latina, 1591; ik. Steiner 1970: 17-35) edo Alonso de Molina-ren *Vocabulario en lengua castellana y mexicana* (1555 eta 1571; ik. Galeote 1993: 279) oso hizkuntza eta oso erlazio ezberdinetako adibide onak izan daitezke, guretzat bereziki interesgarria den Landucciren hiztegia (1562) ahaztu gabe.

Tradizio luzeko hiztegi gintza elebakarra daukaten hizkuntzetan zertxobait kostatu izan zaie hasikinetan hiztegi elebidunek geroko hiztegi gintza elebakarraren garapenean izan zuten garrantzi bereziaz ohartzea: ez da batera arraroa, hortaz, batzuk alde batetik eta besteak bestetik ikertuta ikustea, elkarrekin zerikusirik ez bailuten.⁶ Lexikografia elebidunak tradizio lexikografiko edota literarioan utzi duen aztarna lexikoa aitortzeak oraindik ahalegin handiagoa eskatzen du, itxura denez, alderdi batzuk, hala nola latinetiko mailegu zuzenak edota latinezko hitz jasoen *ad hoc*-eko itzulpenak hizkuntza askotan ondo xamar ezagutzen badira ere.⁷ Haatik, latina-hizkuntza arrunta hiztegi gintza elebiduna nagusi izan den garaietan, adibidez, begibistakoa dirudi era guztietako jakintsu eta letradunek lehenago joko zutela halako hiztegi batera, ezen ez arras bakunago ziren hiztegi elebakarretara.

Adibidez, lehenengo hiztegi osoki ingelesak (Cawdrey, 1604) 2.500 sarrera zituen, garai bereko elebidunak 20.000 ingururaino iristen ziren bitartean (Osselton 1983: 14). Hiztegi gintza elebakarraren atzerapena hobeto ulertzeko, adierazgarriagoa izan daiteke, 1604an Shakespearen lanen bi herenak idatzita zeudela aipatzea eta, areago, antzerkigileak eskura zituzkeen hitzak 15.000 inguru zirela (Starnes & Noyes 1946: 1). Idazle zaharrek dena bere burutik ateratzen zutelako ustea deuseztatzeko moduan, agerian jarri da, bestalde, bai berak, baita bere garaiko beste idazle zenbaitek ere Cooper-en *Thesaurus linguae Romanae & Britannicae* (1565) eta Florio-ren *Worlde of Wordes* (italiera-ingelesa, 1598) bederen ezagutu eta erabili zituztela (Starnes & Noyes 1946: 5). Hizkuntza berean, azkenik, oso nabaria da latina-ingelesa hiztegien lotura zuzena —batzuetan ingeles hutsezko hiztegien bitartez—

(4) Oso argigarria izan daiteke alde honeratik lexikografia elebidun latina-frantsesa eta latina-ingelaren arteko loturak gogoratzea. Adibide bat baino ez: Richar Huloet-en *Abcedarium Anglico Latinum* (1552) delakoaren ereduaren artean gorago aipatu dugun Robert Estienne-ren *Dictionnaire françois-latin* (1539; 2. arg., 1549) sartu behar da, eta haren bigarren argitalpenerako, Higgins-ek egina (1572), berriz, Thierry-k egindako Estienne-ren argitalpen berria (1564) gehi egile beraren *Dictionarium Latino-Gallicum*. Bi adibideok, eraginaren norabidea garai hartan nondik nora zihoan ederki erakusten dituzte (Starnes 1954: 149-150 eta 155-160).

(5) Ik. Guerrero Ramos 1990: 134-135. Bertan Nebrixa erabili duten hainbat lexikografo aipatzen dira.

(6) Oso adierazgarria da, adibidez, Stein-ek (1991: ix-x) lexikografia ingelesari buruz egiten duen iruzkina.

(7) Ikus, adibidez, Osselton 1973, nederlanderari buruz, bereziki 97 eta 108. or.

hizkuntzak barneratu dituen latin hitz ugarien hautapenean (Starnes & Noyes 1946: 40-43).

Arrazoi nabarmenengatik, halako gertakariak bereziki argiak izan beharko lukete euskara bezalako hizkuntzetan, non lehendabiziko lekukotasunak askoz urriagoak izateaz gainera, hiztegi bat izan den, alde bederen, literatur tradizioari abiada eman diona. Baina, azken finean, agerian dago hizkuntza guzti-guztiek noizbait beste batek kulturak itzultzeko premia sentitu eta sarritan sentitzen ere dutela —dela latinetik edo dela boladan dagoenetik, dena dela—, eta hartarako neologismoa (adierarik zabalenean) ezinbesteko bihurtzen duen egokitzapen lan handia egin behar izaten dela. Lan hau, jakina, ez da nahitaez hiztegien bitartez bakarrik egiten, baina halaxe egiten den neurrian ikertzeko dago, hain zuzen, hartan izan duten papera hizkuntza denetan ez bada, gehienetan behinik behin. Zeren eta ondo lekukotutako hizkuntzen historialariek ez eze tradizio labur eta berriagokoek ere nekez baizik ez baitituzte halako gertakariak aitortzen. Eta honen errua, norbaiti egoztekotan, ezin zaie osoki historialariei egotzi, hiztegiak ikertzen dituztenei baino. Arrazoi nagusia, nik uste, honetan datza, alegia, hiztegi elebidunetan norik bere hizkuntzari dagokion zatia bakarrik aintzat hartzean.

0.1. Ereduaren garrantzia *Hiztegi Hirukoitz*-erako

Honezkerok, itzulunguru handi baten bidez izan bada ere, lan honen interesgunera heltzea lortu dut. Alde batetik, elebakar ez den hiztegi bat ikertzeko bere osagai guztiak —ez bakarrik norberaren hizkuntzarenak— kontuan hartu behar direla frogatu nahi nuke, guztiz haren eredia hizkuntzaz kanpokoa dela jakin edo susma deza-kegunean; hau egin ezean, ziur egon gaitezke hiztegia bera ulertzeko oinarrizko datuak galduko ditugula. Bestetik, kanpoko ereduek lexikografiaren historian ez eze lexikoarenean ere eragina izan dezaketela erakutsi nahi nuke, nahiz eta honetara iristeko lehena ezinbestekoa izan eta, beraz, oraingoan ikutuko ditudan oinarrizko gaiak oraindik urrutitxo geratuko diren. Labur bilduz, ereduaren garrantzia, dena dela, aldarrikatzen ari naiz eta, bide batez, inoiz pentsatu izan den baino handiagoa izan litekeela iradokitzen.⁸

Honetarako, adibide bereziki interesgarri bat hautatu dut: Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* (1745; hemendik aurrera *HH*) eta haren eredia izan zen Espainiako Akademiaren *Diccionario de Autoridades* (1726-1739; hemendik aurrera *DAut*). Eta bereziki interesgarria dela esaten badut, ez da bakarrik mende eta erdiz euskara idatziaren historian izan zenagatik, baina batez ere haren inguruan barraiatu diren hainbat aurreiritzi eta uste direla medio, gai orokorrak eztabaidatzeko aukera ezin hobea ematen duelako. Lan honetan zehar sarritan oso arazo tekniko eta batzuetan xeherekin borrokatu beharko badugu ere, hiztegi gintzari oro har eta elebidunari zehazkiago dagozkion gaiak izango ditut buruan; beraz, *HH* hurbilgotik ezagutzea ere lortuko dugun arren, nik uste, halaz ere haiek frogapean jartzeko aitzakia edota adibidea dela ez nuke begi bistatik galtzea nahi.

(8) Gai honen aurkezpen orokorra *II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*-n (Leon, 1999) egin berri dut: ik. Urgell 1999a.

Euskal hiztegitza tradizioan Larramendiren hiztegia leku gailenean jarri beharra dugu: lehenago Etxeberri biak, Bidegarai, Pouvreau, Urte, etabarrek hiztegi mamitsuak ondu bazituzten ere, berea da argitaratzen den lehena, baita mende eta erdiz euskara ezagutu edo landu, euskaraz idatzi, euskarara itzuli zein hiztegi berri bat moldatu nahi izan zutenek eskura izan zuten tamaina bateko hiztegi bakarra. Larramendiri buruz edozein iritzitakoak izanik, inortxok ere ez dio ukatu halabeharrek eskaini zion egokiera hura, alegia, XX. mendera arte euskal hiztegitza eta literaturaren erreferente lexikografiko bakarra izatea.

Izaera hau berau, ostera, madarikazio baten modura jausi da Larramendiren buruarren gainera. Bere garaikideen gehiegikeriek nazkatuta Ibarrek euskal literatura bide berri eta jatorragoetatik bideratu nahi izan zuenean, "maisu" beneragarria atzamarraz ezin seinalaturik, atzerago jo zuen, gaitz guztien iturria nondik zetorkeen begira: eta bertan Larramendirekin topoz topo egin zuen, ezinbestean. Bada Ibarren begirada zeharo interesatu horretatik datoz, etorri ere, Larramendiren hiztegiari buruz dakizkizgun gauza gehienak eta, batez ere, hari buruz heredatu ditugun iritzi guztiak.

Labur-labur kontatuta,⁹ Larramendik hiztegia euskara baldresa zela uste zuten erdaldunak zapuzteko egin omen zuen, eta honexegatik erdara-euskara ordena hautatu. Hautu honek hiztegiaren edukia goitik behera baldintzatu zuen, zeren eta, erdal oinak behartuta, hamaika neologismo asmatu behar izan baitzituen erdal zuloak betetzeko. Larramendik ez eze baita geroko idazle burutsu askok ere jokia nondik nora zihoan ederki ulertu omen zuten, eta hanka-bururik gabeko hitz haiek zuhurki alde batera utzi zituzten beren idatzietan, baina denborarekin hasierako asmoak ahaztu eta Larramendiren ereduak lortu omen zuen gauza bakarra hauxe izan zen: euskaldunak asmakerietan zaletzea. Ibarrek Larramendiri Axularren harako hura ezarri bide zion, alegia, *ez da asko ongi hastea, akabatu behar da*, baita hil ondoren ere, erantsi dezakegun guk.

Erdaldunak atzipetzeko joko edo euskara saltzeko erakusleihu modura ulerturik, bistan da *HH*-ak ez daukala inolako interesik, eta haren azterketa denbora galtzeko aitzakia bat besterik ez litzatekeela izango. Alabaina, azkenengo urteotan Larramendiri buruzko ikuspegia erabat aldatu da: apologia, gramatika eta hiztegia, euskarari buruz egin zituen lanik garrantzizkoenak, argi eta garbi euskara literatur hizkuntza bilakatzeko saio handinahi bezain astiro hausnartutako baten hiru zutabeak dira (Lakarra 1985a eta 1993). Alde honetatik begiratuta, hiztegiak bestelako esanahia dauka, eta haren ereduaren hautaketak bermatu baino ez du egiten ikuspegi berria.

Goaxeago Nebrixa eta Landucci aipatu ditut, lehenengo euskal hiztegitzat har dezakegun hori aldameneko tradizio aurreratuago baten gainean nola eraikitzen den ikusteko adibide gisara: ezen Landuccik Nebrixaren gaztelaniazko nomenklaturatik abiatu baitzen bigarren lekuan italiara, frantsesa eta euskara dituzten hiru hiztegitxoak ontzeko. Alde honetatik, *HH* eta *DAut*-en kasua oso antzerakoa da, Larramendik ere gaztelaniazko hiztegiaren nomenklaturaren gainean hezurmamitu baitzuen bere lana; baina, xeheki begiratuta, batetik bestera alde handia dago, bigarrena adibide hagitx hobea bilakatzen duen aldea, hain zuzen.

(9) Zertzelada guztiak beraren hitzez ezagutu nahi izanez gero, ik. Mokoroa 1935: 119-125. Ibarren ustea Larramendiren aldetik ez eze, beste muturrean jartzen duen Iparraldeko literaturarenetik ere eztabaidagarria da: ik. Urgell 1992.

DAut eredutzat aukeratzeak zituen inplikazio bereziak hobeto uler ditzakegu, agian, katalanez gertatutakoak ezagutzuz,¹⁰ nahiz eta Herri Katalanen hizkuntzaren egoera —eta historia, batez ere— aski ezberdina izan: “...una lengua que en otros tiempos lo fue de Corte, y en la que escribieron varias obras los reyes de Aragón y que se conserban de el día”, Bartzelonako Reial Acadèmia de Bones Lletres Carlos III.a Espainiako erregeari gogoratu zion bezala 1770 inguruan (ap. Colon & Soberanas 1986: 131).

DAut-ek katalanez ere ondorenak izan zituen, hala nola Carles Ros-en *Diccionario valenciano-castellano* (1764) edo fra Antoni Oliver-en *Vocabulari mallorquí-castellá* eskuizkribatua (a. 1787), baina hauek lan txikiak dira ereduaren aldean. Egitasmo handiagoak, batez ere aipatutako Acadèmia de Bones Lletres-aren inguruan sortuak, bata bestearen ondoren agertzen dira XVIII. mendean zehar. Josep Climent Bartzelonako Apezpikuak Herri Katalanak gramatika baten eta hiztegi handi baten bidez gaztelaniatzeko asmoa (!) hartuta, Akademiara jo zuen (1769), baita honek lehendabiziko lanak egin ere egin zituen, Cruscaren eta Espainiako Akademien hiztegiak eredutzat hartuta; asmatzailearengandik egileengana asmoak zertxobait “okertzen” dira, Akademiak hiztegia ahalik osoena egin nahia adierazi baitzuen “para que sirva de depósito de la lengua catalana y de desempeño para la utilidad del público, no sólo en punto de las voces usuales y corrientes, sino también para la inteligencia de las antiguas y aún de las antiquadas...” (ap. Colon & Soberanas 1986: 131). Félix de Prats i Santos, Serrahí-ko baroiak 1790ean latina-gaztelania-okzitaniera-katalana hiztegi bat egiteko premia aipatzen du Akademiaren aurrean, katalan zaharra ulertu ahal izateko eta bere egunetakoa garbitzeko: “Córrese pues por V.E. [Akademia] el velo que cubre estas preciosidades [testu zaharrak], póngalas a la vista del público y hágalas familiares a todos con la formación de un *Diccionario* (...), que abrirá la inteligencia a estos idiomas y será un verdadero crisol para purificar el catalán del día” (ap. Colon & Soberanas 1986: 132). Hauek guztiak —eta gerokoren batek ere— huts irten bazuten ere, argi geratzen da *DAut* hizkuntz hiztegi handien erabateko eredutzat hartua izan zela garai hartan: norik bere hizkuntzarentzat nahiko zukeen modukoa, hain zuzen.

Antzeratsu ulertu behar dugu Larramendiren aukera ere; berak halaxe egin zuen, bederen: “En fin, para no embidiar a otras Lenguas alguno de sus ornamentos y curiosidades, logra oy el Bascuence tener su *Diccionario*, que es el que ahora se da a la estampa” (Larramendi 1745: xliii).

Halaz ere, xehetasun honi ez zaio orain artean garrantzirik aitortu; aitzitik, ia-ia aipatu ere ez da egiten, eskuarki zehazten ez den “gaztelaniazko hiztegia” hitzez hitz jarraitzeagatik hitz berriak asmatu beharra izan zuela esateko ez bada.¹¹ Izan ere, Iba-

(10) Xehetasun guztiak Colon & Soberanas 1986: 122-135tik atereak dira.

(11) Ibarrek (1935: 121) “...recurrió a la comparación directa con el español, partiendo del diccionario oficial de éste (CASTELLANO, VASCUENCE Y LATIN) y no vaciló en forjar sigilosos y arbitrarios neologismos cuantas veces se los reclamaba el pie forzado de su tesis” dio. Mitxelena: “La misma disposición del *Diccionario* (castellano-vasco) está proclamando que se trata más bien de una obra para la exportación. Lo grave de este pie forzado es que, para que no quedaran huecos sin traducción, Larramendi se creyó obligado, como dice un crítico, a «forjar sigilosos y arbitrarios neologismos»” (1959: 907), edo “La disposición del *Diccionario* (castellano-vasco-latín) es un pie forzado que le obligó a rellenar con neologismos los huecos sin traducción (...)” (1960: 98), etab. Era Villasantek: “...está ordenado en forma de diccionario castellano-vasco, o sea, se toman como base las voces castellanas del *Diccionario* de la Real Academia Española, y al lado se ponen las voces vascas y latinas correspondientes al vocablo castellano” (1979: 134), etab.

rren eta ondoren bere bidetik ibili diren guztien interes nagusia, alde honetatik, larramenditarren eta sabindarren neologismoak ezabatzea eta gerokoengan halakorik egiteko irrikia uxatzea zenez gero, interes gutxi zuen ereduak ez eze harekin lotutako beste edozerk, gaztelaniazkoa zela izan ezik.

Mitxelenaekin gauzak zertxobait aldatu ziren, bera izan baitzen Azkuez geroz hiztegi zaharrekiko interesen bat aurkeztu zuen lehena, batez ere Azkueren hiztegia berriztatu behar zuelako, baina ez bakarrik.¹² Lan honetarako aurkitu zuen arazorik larrienetakoa, dirudienez, Larramendiren hiztegia izan zen, eta gogora dezagun Mitxelena ere ageri-agerian —baina ez bukaeraraino—¹³ “ibartarra” izan zela honi zegokionez: Azkuek atea zeharo itxi nahi izan zien arren, “sin querer ni enterarse de lo que su antecesor pudo decir” (Mitxelena 1970: 27), *HH*-ko hitzek zirrikituetatik sartzeko bidea iritsi zuten, ondoko hiztegi-gile eta idazleen izenpean izkutatuta. Kezka horrekin lotuta, *HH*-ko *Eranskina*-ren azterketa interesgarria gauzatu zuen baina —eta *baina* guztiak ez lirateke tamaina beraz idatzi behar— pitinka baizik ez zen inoiz hiztegiaren gorputzean barneratu,¹⁴ are gutxiago aztertzeari ekin. Teorikoki, gainera, ez zeukan motiborik ere, ez bakarrik “ibartarra” izan zen heinean, baizik eta, are eta gehiago, euskal hiztegiak nola eta zertarako ikertu behar diren mugatzen duen teoria trinko baten aldeze ez eze maisu nagusia den aldetik.

Aipatu dudan *Eranskina*-ren azterlanean, atari-atarian, hiztegiek hizkuntzaren historian egin dezaketean laguntzaz baina, batez ere, haren gainean bota ditzaketean laino ez ari dela, *codex descriptus*-aren muga ezartzen du:

...es evidente que, en cuanto se introduce la dimensión histórica en un diccionario, la crítica de fuentes habrá de ser llevada a sus últimas consecuencias. Hay que llegar en lo posible al origen primero de los datos, sin dejarse desviar ni influir por fuentes secundarias. Las noticias vienen corriendo de mano en mano y las transmisiones sucesivas nada suelen añadir, si no es herrumbre y confusión, a la autoridad de la primera fuente (Mitxelena 1970: 27).

Muga honen arabera, Vulcanius-en hiztegitxoa (1597), osorik bi iturri ezagunetatik —Marineo Siculoren hitz zerrendatik eta Leizarragaren Testamentutik— egina denez gero, *codex descriptus* hutsa da, “...y, como tal, podemos y debemos prescindir de él en absoluto” (*ibid.*). Ildo honetatik, Larramendiren *Eranskina* ia osorik *descriptus* bihurtzea lortu bazuen ere (hitzen %65 inguru, nire kalkuluen arabera), ez zegoen —ez dago— inolako bermerik *HH* osoa *descriptus* izango denik edo bilaka

(12) Landucciren hiztegiaren azterketa (1958) aipatzea baino ez dago, Mitxelena jakinahia batez ere euskararen historiaren aldera makurtzen zela ohartzeko, bestela ere aski ezaguna ez balitz.

(13) Izan ere, Larramendiri buruzko ikuspegi aldaketaren lehenengo agiri argitaratua Mitxelena 1984 dugu, non Lakarraren eta besteren lanetan sakonkiago aztertu izan diren hainbat kontu zirriborratuta —haren idazkerari “zirriborro” dei baldin badakiok— agertzen baitira, azken denboretan *à la page* ez eze doi bat aurreratura ere ibiltzeko trebetasuna galdu ez zuelako erakusgarri aski argia, bestalde.

(14) Adibideren batzuk aurki daitezke bere lanetan zehar, baina beti ere ezinbestean, datu bila, barneratu zen: sartirtenak baino ez dira. Ikus, adibidez, *aldi*-ren iruzkina (Mitxelena 1970: 100-101), *Eranskina*-ren azterketa osoan zehar dagoen *HH*-ko aipamen bakarra, oso oker ez baldin banago.

daitekeenik.¹⁵ Ez eta hurrik eman ere. Mitxelenak berak esana utzi du: "...para escribir el *Diccionario* tuvo Larramendi que recoger muchas noticias de labios del pueblo y de las obras impresas que buscó con afán, dándonos un primer esbozo del pasado de la literatura vasca" (Mitxelena 1960: 98). Motibo falta, oster, bestetik zetorren: "...ezta erraz jakiten euskal-itz direlako orietan zer den entzuna edo irakurria eta zer den aldatua edo burutik burura asmatua" (Mitxelena 1961: 364).

Uzkurtasun honekin begiratuta, inolaz ere, *HH* zingiradi arriskutsua bilakatzen da Mitxelenak hartaz eraiki zuen irudian, *descriptus* ez den neurrian hitz zalantzazkoz betea. Beraz, gabe pasa behar, haren azterketak ziur aski emaitza interesgarriak baino arazo pila errazago ekarriko baitigu. Eta Mitxelenari, euskal hiztegiez den bezainbatean, hitzak bakarrik interesatzen zitzaizkion, eta hitzetatik euskararen historiaz atera daitekeen informazioa, besterik ez. Ez da gutxi, jakina, baina aldi berean ez da aski, baldin eta euskal hiztegitzaren historia berreraiki nahi badugu.¹⁶

Premisa hauekin, ziur naiz *HH* ireki eta bertan zerbaiten bila abiatu den edozein filologok zirrara berezi bat sentitu duela, ia-ia debekuren bat hausten duenaren edo galbidez beterikako oihanean sartzen denaren antzera. Etsimenduak itzala luzatu du hiztegi honen gainetik, eta gauzak ez dira harrezkero gehiegi aldatu, nahiz eta, bestalde, teoriaren aldetik Larramendiren eginek —*HH* barne— izugarritzko jakinmina piztu duten azken urte hauetan.

Teoria berriek dioskute, gorago adierazi bezala, *DAut* eredutzat hartu izana ez dela kasualitatea, ez eta bertatik bertara alde batera utz daitekeen xehetasuna: gaztelaniazko hiztegitik onena hartu baldin bazuen, euskarazko hiztegitik onena —osoen— egin nahi izan zuelako izan zen, hain zuzen, zeren eta bere ageriko asmoa gaztelaniazko kultura osoa euskaratzea izan baitzen. Honegatik, *HH*-aren eduki eta izaeran barneratzeko abiapunturik irmeena ereduarekin erkatzea izango da, berak zer eskaini zion eta nola baliatu zuen jakinik barneko berri gehiago —orain bainoago bai, ziur— izango dugulakoan. Oso oker geundeke, ereduak eskaini dion gauza bakarra gaztelaniazko hitz sorta luze xamar bat izan zela pentsatuko bagenu: askoz gehiago dago *DAut*-en, eta askoz gehiago balia zezakeen, beraz, Larramendik.

0.2. Azterketa mota

Alabaina, bi hiztegi nola erkatzen diren jakiteko, hasierara itzuli beharra dauka: Historiak goitik behera baldintzatutako teknika jakin batzuen arabera egiten den eta konbentzio sistema oso baten arabera gobernatzen den testu mota berezi bat dira hiztegiak. Testuak diren aldetik gainerako testu guztiak bezalaxe testukritikaren ikergai izan daitezkeen arren, egiatan testukritikak arreta gutxi edo batere ez eskai-

(15) *HH*-aren iturri idatzi ezagunak —bai euskal liburuak (Leizarraga, Axular...), baita erdarazkoak (Oihenart, Etxabe, Isasti...)— Urgell 1999c-n aztertzen ari naiz. Honelakoei, hiztegitileak lainoki aitortzen baditu ere, orain artean ez zaie inolako arretarik eskaini: alabaina, nabaria da *HH*-aren beste alderdi bat ezagutzeko bide zuzena eskaintzen dutela, ereduaren azterketarekin batera.

(16) Oraintsu arte hiztegi zaharrak euskal lexikoa osatzeko balio duten neurrian balioetsiak eta aztertuak izan direla frogatzen saiatu naiz lehenagoko lan batean (Urgell 1997). Bertan ikus daitezke ikuspegi honek eragin dituen okerretatik, hala nola ikerketari beste era batera ekinez erdiesten diren ondorio jakingarrietatik zenbait.

ni die orain artean (Lakarra 1993: 344), haien arakaketa lehenbizi lexikografoen euren eta azken urteotan metalexikografoen eskuetan utziaz. Nolanahi ere den, hiztegiak nolakoak diren, zertaz dauden osaturik eta nola egiten diren jakitea ez dagokio hiztegi-gileari bakarrik, edota hiztegi-gilearen teknika hobetu nahi lukeen metalexikografoari, hiztegiez aritu behar duen edozein ikertzailereri ere bederen baizik.

Beraz, oraingo Metalexikografian aztertu ohi diren ezaugarrietatik zenbait maituko ditugu lanean zehar, testukritikak alderdi batzuetan egin dezakeen laguntza ahaztu gabe, atal bakoitzean haien zergatia eta nondik norakoak ahalik xehekiena kontatuaz. Aski ezaugarri teknikoak dira lehenengo hurbilketa honetan sartu ditudan gehienak —tamaina eta edukia (§ 1), egileak (§ 2), lan egiteko forma (§ 3), aurkezpen grafikoa (§ 4) eta alfabetatzea (§ 5)— baina, halaz ere, egileak zer egin nahi izan zuen eta, oztupoak gaindituta gero, zer atera zitzaion ikusteko parada egokia emateaz gainera, haren lan egiteko formaz xehetasun berri-berriak eta *HH* ezagutzeko ezinbestekoak eskaintzen dizkigute.

1. Tamainaz eta edukiaz: oinarritzko datuak

Larramendiren hiztegia bi liburukitan izan zen argitaratua, *in-folio* txikian:¹⁷ Vinsonek (1891-1898: 192, 75a zb.) esku artean izan zuen ale bereziki eder bat 30'35 x 20'4 zmkoa zen. Liburuki bakoitzaren egitura eta hedadura honako hauek dira:

I) 18 orrialde zenbatu gabe: [i-ii] izenburua; [iii-viii] Gipuzkoako Probintziari eskaintza; [ix-xviii] oniritziak, baimenak, pribilegioak, tasa eta hutsen zuzenbidea. Hitzaurrea (i-ccix). Hiztegiaren lehen zatia (1-436, A-Hyssopo).

II) 2 orrialde zenbatu gabe izenburuarekin. Hiztegiaren bigarren zatia (1-392, Ibero-Zuzon). 11 orrialde zenbatu gabe: [i-viii] Hiztegiaren *Eranskina*; [ix-xi] hutsen zuzenbidea.

Orain interesatzen zaigunera —literatura berrian “A-Z atala” deitu ohi denera— mugatuta, orotara 828 orrialdetako hiztegia da. Hiztegi guztian zehar zunda bota eta aliritzira 33 orrialdetako emaitzak aintzat hartuaz, ez dut aurkitu 44 sarreratik behera ez 72tik gora daukanik (sarreratzat oraingoz lerrokadak harturik),¹⁸ usukoenak, ordea, 50-60 tartean daude:

(17) 1650-1750 arteko hiztegi frantses gehienak ere *in-folio* argitaratu ziren (Bray 1989a: 137). Esan gabe doa, egile berak gogoratzen duenez, halako tamainako hiztegiak ez direla irakurle aruntarentzat eginak, orduko biblioteka bakanetako apaletan burua ederki agertzeko baizik. Egia esan, orduan ez zegoen irakurle arrunt ez eta hiztegi erabiltzaile gehiegi. Hizkuntza berean, XVIII. mendean erdialdetik aurrera, tamaina jaisten da erosleria zabalago baten bila, eta aldaketa bereziki argia da XIX. mendean, hezkuntzaren hedadurarekin batean. Alde honetatik, adierazgarria da *HH*-aren bigarren argitalpena (Donostia, 1853) *in-4º* atera izana. Dena dela, Larramendik bere lanaren erabilgarritasunaren aldeko adierazpen interesgarri bat egiten du, bai tamainaz baita liburukien kopuruaz ere: “pero porque son muchos, y grandes, sus tomos [*DAu*-enak] no son manejables para los Gramáticos y Aprendices del Latín. Dos cuerpos son, y no más, mi Diccionario, y de fácil manejo” (1745: xlv).

(18) Hiztegi baten edukia neurtzeko erabiltzen den sarrera adieraz, ik. Landau 1989: 84-87, eta hiztegi zaharretan halako neurketetan sartzeko dauden arazoez, ik. Quemada 1967: 265 t. hur. Arazoak bereziki larriak dira *HH* bezalako hiztegietan, sarrera bereiz dezakeen grafismorik ez duelako (ik. § 4).

I. liburukia

or.	15	36	59	82	110	129	167	189	231	262	295	326	335	369	392	418	435
sar.	45	46	45	47	46	50	61	50	52	63	63	53	63	72	48	53	44

II. liburukia

or.	15	33	55	90	115	143	170	187	211	230	249	287	311	333	348	388
sar.	63	56	55	54	56	54	53	51	55	54	52	53	53	56	60	45

Sarrera usukoena bi lerrokoa izaten da, baina hitzen arabera alde handiak ager daitezke, jakina; muturreko kasua aditz trinkoek eskaintzen digute, zeren eta haien paradigmek orrialde osoak (*ver*-en kasuan orrialde erdia, lau pasarxo *andar*-enean eta sei baino gehiago *hacer*-enean, adibidez) betetzen baitituzte batzuetan. Gainerantzean, antzematen diren gorabeherak etimologiak (ohi baino lerrokada luzeagoak eskatzen baitituzte sarritan), alfabeto hurrenkeran hitzen bigarren letraren aldaketa (AB, AC...) iragartzen duten izenburutxoek (ik. § 4.1) eta, jakina, azalpenen luze-laburrak baldintzatuta daude. Ohar bedi, dena dela, hasierako orrialdeetan batatz beste sarrera gutxiago izateko joera dagoela: laginean 110. orrialdera arte behin ere ez dugu 50 sarreratik gorakorik aurkitu. Honenbestez, badirudi Larramendi hiztegiaren aurreratu ahala sarrera laburragoak egiten saiatu zela eta, beti goiko erakuskariaren arabera, neurria 129. orrialdearen inguruan —hots, B letraren hasieran— iritsi zuela, nahiz eta 2. liburukian egonkorrago izan 1.an baino.

Orotara hiztegiako sarrerak beharbada 40-45.000 izan daitezkeela deritzat, orrialdeko 50-55 sarrerako kopuru ez ausarta aintzat hartuaz; nolahi ere, ez litzateke inolaz ere 40.000tik beherakoa izango.¹⁹

Zailagoa da, baina aldi berean jakingarriagoa, zenbat euskal hitz egon daitezkeen kalkulatzeko; bidalketa-deiak eta ohiko errepikapenak buruan izanik, demagun sarrerako euskal ordain bakarra dagoela, ziurrenik gehixeago ere egon litezkeen arren:²⁰ honek 40.000 inguru euskal hitz egingo lituzke. Kopurua erraldoia da: esate baterako, Urteren hiztegi handiak (2.457 orrialde), 10.000ren bat euskal hitz ditu, Urki-zuren (1989: 90) kalkuluen arabera. Dena den, Urteren orrialde/euskal hitz proportzioan *HH*-arekiko dagoen aldea antzemanik, baten batek pentsa lezake *HH*-rako baikorregia izan naizela. Ez da hala, ordea, eta Urteren errepikapenerako joera ezagunari egotzi beharko diogu errua, agian, zeren soilik euskarazko A lettran jadanik 4.867 euskal hitz ezberdin baitaude *HH*-an.²¹ Beraz, hasierako letren maiztasunari buruz dakigunagatik, pentsatzekoa da E eta A letrek, elkarrekin hartuta, eurek bakarrik egin lezaketela Urtek adina euskal hitz.

(19) Osseltronek (1973: 35, 5. oh.), adibidez, erraldoitzat jotzen du gutxi gorabehera halako tamaina daukan Hexham-en neerlandera-ingelesa zatia (1647), garai bereko ingelesezko elebakarrik handienak (Phillips-en *New World of English Words*) 1658ko argitalpenean 11.000 eta 1696koan 17.000 ditu eta.

(20) Lakarrak (1993: 326) 60.000tik gora izan daitezkeela proposatu du, 800 orrialde x 80 hitz inguru bakoitzeko eginez.

(21) Kopurua behin-behinekoa da oraingoz, eta J.A. Lakarra irakaslearen zuzendaritzapean egiten ari naizen tesirako (Urgell 1999c) prestatu dutan corpusetik aterata.

Beste era batera ere saia gaitezke gutxi gorabeherako kopurura iristen, Azkueren hiztegien, aldeak alde,²² letra bakoitzak betetzen duen lekuaren arabera, alegia:

A	120 or.	%11'6	M	58 or.	%5'6
B	73	%7	N, Ñ	30	%2'9
D	16	%1'5	O	62	%6
E	96	%9'3	P	36	%3'4
F	5	%0'4	S	46	%4'4
G	62	%6	T	88	%8'5
I, J	79	%7'6	U	47	%4'5
K	58	%5'6	X	18	%1'7
L, LL	49	%4'7	Z	87	%8'4
			orotara	1030 or.	

Azkueren hiztegia A %11'6 izanik, orotara Larramendiren hiztegia 41.956 euskal hitz egon litezkeela ateratzen zaigu, proposatu dugunetik ez urruti. Ez zuen alferrik esan Larramendik: "La cantidad de voces que he recogido en este Diccionario es grande, y sorprenderá a Bascongados y Castellanos" (1745: xlv). Inolako zalantzarik gabe baieztatu daiteke ordura arte egindako euskal hiztegiak handiena izan zela, alde handiaz, gainera.²³

Ez dugu hainbeste xehetasunen beharrik *DAut*-i dagokionez; sei liburukitan argitaratu zen (1726, 1729, 1732, 1734, 1737 eta 1739); lehenak 96 orrialdetako hitzaurrea darama, eta azkenak "Continuación de la historia de la Real Academia Española" deritzana. Liburukien edukia honako hau da: I. (A-Buzon) 723 or.; II. (C-Cyone) 714 or.; III. (D-Futuro) 816 or.; IV. (G-Ñudoso) 696 or.; V. (O-Ruxar) 656 or.; VI. (S-Zuzon) 578 or.

Orotara, beraz, 4.183 orrialdeko hiztegia. 37.600 sarrera baino gehiago ditu, adierak, esapideak eta erretrauak kontuan hartu gabe (Lázaro Carreter 1981: 113). *HH*-aren eta haren ereduaren arteko aldea begibistakoa da: orrialdeetan ereduaren bostena baino ez du egiten, eta sarreteran ere —adiera estuan— askoz gutxiago bide ditu, gure zenbakietan Lázarak bereetan aintzat hartu ez dituen osagaiak sartuta baitaude, esan bezala.²⁴ Dena dela, ziurrenik aldea ez da dirudien bezain handia, bakoitzaren sarreraren oinarriko edukiak ezberdinak izaki,²⁵ Larramendirenak gehienetan askoz laburrago suertatzen dira eta.

(22) D letran, adibidez, *HH*-an *des-* aurrizkiaren bitartez eratorritako hitzak ehundaka dira, bestean ez bezala. Jakina da, bestalde, Azkuek xehekiago jaso zituela II. liburukiko hitzak, M-tik aurrerakoak.

(23) *Pouvrearen* hiztegia, dakidalarik, neurtu gabe dago: ikusi dudak eskuizkribuaren kopiaren arabera, ordea, nahikoa txikiagoa da. Etxeberri Sarakoarena, Larramendiren hitzei jarraiki (1745: xxxvi), ez bide zen hiztegi txiki bat baizik "...que impresso pudiera servir para entender los pocos Libros que ay en Bascuence, aunque no con toda extensión" (etzana neurea da). Harrietenak, berriz, 1.650 bat sarrera ditu euskara-frantsesa zatian eta 3.350 bat frantsesa-euskarari, eta Landuccirenak 6.000 sarrera, S-tik aurrera gehienak hutsik, ezaguna denez (Lakarra 1993: 91 eta 139). Gainerako hiztegi zaharrez ditugun daru apurrek aukera gutxi ematen digute haien luze-laburrak ezer argirik ateratzeko, salbu eta Pierre Duhalde josulagunarenaz, eskuizkribuak *in-folio*-ko hiru liburuki betetzen zituela baita hartaz dakigun gauza ia bakarria (Humboldt 1817: 111; ik. halaber Lakarra 1993: 90); tamaina bateko hiztegia izan bide zen, beraz.

(24) *DAut*-etik *HH*-ra dagoen sarrera eta bestelako osagaien bilakaeraz ik. Urgell 1999a.


(25) Gai honetaz ik. Urgell 1998.

Inoren esanak bete-betea sinistea, egiaztatu gabe, oso arriskutsua izan daiteke honelako kontuetan: Larramendik “contiene todas las voces Castellanas de aquel gran Diccionario Español en sus seis gruesos tomos” badio ere (1745: xlv), ikusi berriak gara hitzen bat bederen peitzen duela, eta ez litzateke harrigarria izango, zenbakien arabera, hiztegi osoan zehar ehunka ere peitzea. Honen ildotik, oinarritzko galdera bat sortzen zait: Larramendik oro har *DAut*-en gaztelaniazko nomenklatura, kenketaren batekin balitz ere, hasi eta buka, haren proportzioak gordez baliatu zuen, ala bada-goke nonbait jauziren bat? Galdera ez da, noski, alferrikakoa, erantzunak ereduare-kiko erlazioaren sendoa berma baitezake edo, alderantziz, haren ahultasuna igartzen hasteko aztarnak eman. Ondoko zutabeetan, hurrenez hurren, letra bakoitzeko ondoko xehetasunok eskaintzen dira: (1) *DAut*-eko orrialde kopurua; (2) osotasunarekiko portzentaia; (3) *HH*-ko orrialde kopurua; (4) osotasunarekiko portzentaia;²⁶ eta (5) letrako *HH*-ak *DAut*-i buruz galdu duen portzentaia (1 eta 3. zutabeen artekoa):


	1	2	3	4	5
A	524	%12,5	122	%14,4	%23,3
B	199	%4,76	32	%3,77	%16,1
C	714	%17,1	97	%11,4	%13,6
D	354	%8,46	54	%6,36	%15,3
E	348	%8,32	60	%7,07	%17,2
F	114	%2,73	22	%2,59	%19,3
G	102	%2,44	27	%3,18	%26,5
H	98	%2,34	29	%3,42	%29,6
I	114	%2,73	26	%3,06	%22,8
J	24	%0,57	6	%0,71	%25
K	2	%0,05	0	0	0
L	102	%2,44	28	%3,3	%27,5
M	198	%4,73	52	%6,12	%26,3
N	56	%1,34	11	%1,3	%19,6
O	68	%1,63	16	%1,88	%23,5
P	376	%8,99	75	%8,83	%19,9
Q	32	%0,77	10	%1,18	%31,3
R	180	%4,3	48	%5,65	%26,7
S	200	%4,78	47	%5,54	%23,5
T	182	%4,35	45	%5,3	%24,7
U	22	%0,53	5	%0,59	%22,7
V	126	%3,01	22	%2,59	%17,5
X	10	%0,24	4	%0,47	%40
Y	6	%0,14	2	%0,24	%33,3
Z	32	%0,77	9	%1,06	%28,1
OROTARA	4183		849		%20,3

(26) Orotara, esan bezala, 828 orrialde baditu ere, portzentaia 849ren gainean egin dira, *DAut*-ekin berdintzeko: zeren honek —Larramendik ez bezala— letra bukatzearekin (geratzen den lekuan geratzen dela) bukatutzat ematen baitu orrialdea.

C letraren ia 6 puntuko jaitsiera eta, neurri txikiagoan, A-ren ia 2 puntuko igoera eta D-aren beste horrenbesteko jaitsiera dira erkaketan ageri diren gailur bakarrak. Orokorrean, ordea, ezin esan daiteke aldaketa esanguratsurik egon denik: Hurrengo irudiko beheko bi marretan [non X = letrak (A-tik hasita hurrenez hurren zenbakiez ordezkaturata), eta Y = portzentaiak (goiko taulako 2 eta 4. zutabeak)] ikus daitekeen bezala, bi hiztegietan letrako orrialde portzentaia orokorrak (osotasunarekikoak) parean doaz gora eta behera, sarritan elkarren gainean ibilki:²⁷



Gorago ageri den marra hagin zorrotzekoan, berriz, letrako *HH*-aren *DAut*-ekiko portaera (goiko taulako 5. zutabea, alegia) irudikatzen da. Ageri diren aldeek hasieran adierazgarriak eman badezakete ere, badirudi letra bakoitzaren orrialde kopuruarekin lotuta daudela eta, beraz, kasuistika hutsari egotz dakizkiokela neurri handi batean: hurrengo irudian ikus daitekeen bezala, lehengo datu berberak bestela antolatuta, hau da, letrak orrialde kopuruaren arabera (kopuru txikietatik hasita, ezker-eskuin) ezarzen baditugu, zenbat eta letra batek orrialde gutxiago izan, *HH*-ak jasotzen duen portzentaia aldakorragoa baita (cf. ezkerreko hagin zorrotzak) eta, alderantziz, zenbat eta orrialde gehiago, orduan eta egonkorragoa (cf. 50 orrialdeko kopurua baino lehentxeagotik eratzen hasten diren bihurgune ireki eta borobilagoak):



(27) Taulak eratu eta behar bezala ulertzeko Angel Martín Fradejas jaunaren laguntza ezinutzizkoa izan dut.

Esan gabe doa, azken finean, orrialde kopuru txikiko letretan orrialde gutxi batzuen gorabeherak eragin handiagoa izango duela, kopuru handikoetan baino: ezker-ezkerrean ditugu, hain zuzen, bi muturrak: batetik, K letrak zituen 2 orrialdeak zeharo galdu ditu (%0); bestetik, X-k zituen 10etatik 4 gorde ditu (%40).

2. Egileez

Badago funtsezko ezberdintasun bat bi hiztegien artean, Larramendik agerian jarri zuen bezala:

Para que la Lengua Castellana tenga un Diccionario digno de si misma, y de su Magestad y grandeza, ha sido necesario que toda una Academia Real Española aya empleado sus luces y cuidados en esta empresa: y para entender lo arduo y trabajo del empeño, no hai más que leer su Historia, especialmente al principio del tomo 6. Allí se verá como y entre quantos Académicos se repartieron las Letras y sus diferentes combinaciones; allí las juntas repetidas de cada semana, los exámenes, revisiones, correcciones. Allí no se puede ver, a la verdad, la fatiga inmensa de cada uno de los Académicos, el estudio, la elección de Autores selectos, observación de las voces, distinción de los significados... (Larramendi 1745: li).

Gaztelaniazko hiztegi-gile bakarti zenbaiten ustetan —Seco-k (1987: 145-147) bildutako berrien arabera— Akademiaren hiztegiaren (hiztegien) akats gehienak alde honetatik datoz, hain zuzen. Lehenengo akademikoek bazekiten Frantziakoak erredaktore bakar bat —Vauguelas lehen, gero Mezeray— izendaruta, bere lana gero denen artean eztabaidatzen zutela, baina metodoa luzetsi eta elkar-lana egitea erabaki zuten. Hiztegia egin orduko izan zituzten buruhauste gehienak, oster, erabaki honek eman zizkien: akademiko batzuen alferkeria, estilo ezberdintasunak, liburu bera hiztegi-atal bakoitze hainbat aldiz irakurri beharra... aurrez ikusi ez zituzten honelako eta bestelako arazoak gaindituaz bakarrik aurrera atera ahal izan zuten, azkenik, lehenengo hiztegi hura (Lázaro Carreter 1981: 110-111).

Larramendi bera ere ohartu zen honetaz baina, esanguratsuki, batere kritikarik gabe (grafiari dagokiona izan ezik, beharbada)²⁸ aipatzen du: "...observé la diferencia de las manos, pero blancas todas; la diversidad de estilos, todos agudos y bellos; la discrepancia de ortographias y puntuaciones, todas en mi opinion corrientes" (Larramendi 1745: lii). Esanguratsuki diot, zeren eta goiko eta beheko pasarteak, eta hitzaurrean zehar aurki daitekeen besteren bat ere, denak *HH* gizon bakar batek egindako lana dela azpimarratzeko idatziak baitira. Nork daki nahita ala beharrez izan zen? Kexatu, bederen, egiten da pasarte batean baino gehiagotan; hona hemen sentikorrena: "Halléme con el camino totalmente cerrado, y sin guía alguna, sin compañero que quissiese ni supiesse ayudarme, siquiera en la combinación seguida de alguna Letra" (Larramendi 1745: lii).

Alabaina, Larramendi ez da bere kabuz eta indar hutsez aritu den euskal hiztegi-gile bakarra; aitzitik, badirudi XX. mendera arte hauxe izan dela ia denen patua; bi

(28) Larramendi ez zegoen Akademiak proposaturako sistema berriarekin ados: "todas en mi opinión corrientes" hitzekin bat etorririk, *HH*-an hitzak sarritan era batera eta bestera idatzita agertzen dira, Akademiak hartutako erabakiaren aurka.

salbuespen bikain aipatu behar ditugu, ostera: Oihenartek Pouvreuren hiztegian egin zuen zuzentze, argitze eta osaketa lana²⁹ eta Abbadie-ren ekarpena Lécluseren gramatikakoetan.³⁰

Zalantzarik gabe, hizkuntzaren egoerak zerikusi handia izan du honetan: euskal hiztegiak gizon bakar —eta sarritan bakartu— baten ahaleginaren ondorena dira, eta eskuarki gizon bakar horren intuizio eder zein hutsen, zaletasun zein gorrotoen fruitua. Talde-lana hiztegegintzan oso-oso berandu sartu da Euskal Herrian. Orain gogoratzen dudan lehen alea, Tournier-Lafitte hiztegia da (1953), baina gure historiaren alderdi honek ere azterketa lasaiago baten beharra dauka. Adibidez, Azkuek “colaboradores” deitzen dituenak (1905: x-xiii), gehienak hitzun arruntak —berriemaile hutsak— dira; izen batzuek, aldiz, bestelako laguntza izkutatzen bide dute: Brous-sain, Daranatz, Lacombe, Landerretche, Constantin...; Louis Chollet, berriz, argitale-txeak frantsesezko alderdia zaintzeko jarri zuen zuzentzailea izan zen. Berriemaileek, Landuccirengandik hasita (1562), hainbat euskal hiztegitan hartu dute parte, Larramendiren hiztegia barne, baina nabarmena da ez dutela hiztegia mamitzen lagun dezaketen letradunekin inolako zerikusirik.

Erdalerrietan, berriz, gauzak askoz lehenago aldatu ziren: Akademien hiztegiak alde batera utzita ere, ez dira falta XVIII. mendean izen bakar baten itzalpean argitaratu arren, laguntzaileak izan zituzten hiztegiak: esate baterako, definizioak dituen frantsesezko lehen hiztegi elebakarraren (Richelet-en *Dictionnaire François*, 1680) osaketan, arlo ezberdinetan lagundu zioten kolaboratzaile bat baino gehiagok esku hartu zuten eta, adibidez, François Cassandre deitu bat hitz zailez kezkatu zen (Bray 1986: 18). Samuel Johnson-en *A dictionary of the English Language* (1755), hizkuntza hartan mugari bat ipini zuen hiztegiak, berriz, sei laguntzaile izan zituen (Casares 1992: 145-146).

3. Lan egiteko formaz dakiguna

Sarasolaren definizioan hiztegiaren bi ezaugarri bakarrik aipatzen dira, ordena (“hurrenkera jakin baten arabera sailkaturiko...”) eta edukia (“hitz bilduma”), eta, jakina, hauetaz gainerako guztiak nola edo hala aldakorak edo ez nahitaezkoak direla ulertu behar dugu. Gauzak honela, hiztegiaren edukia izango dena —hitzak-eta— jaso eta ordenatzerakoan hiztegegileak erabili duen prozedura guztiz jakingarria da, bai teknikaren historian gertatu diren aldaketak ezagutzeko eta, bide batez, lanaren handiaz jabetzeko, bai eta hiztegian izan litzakeen ondorioak —hala nola alfabetatze gorabeherak, adibidez— aurrez ikusteko.

Akademikoek, hasieran bederen, orrietan idazten zituzten definizioak eta adibi-deak, gero ebaki eta behar zen ordenan kokatu ahal izateko alde bakarra erabiliaz; egin dezakegu zatiak orri berrietan itsatsi behar zituztela, idazketa, mozketak, ordenatze eta itsasketan denbora luzea emanez. 1721-VI-26 arte (hots, lana hasi eta zor-zigarren urtera) ez da “cédula” hitzaren aipurik Akademiaren agiritan (Lázaro

(29) Elkarren artean izan zuten gutuneriaren zati bat bederen —Oihenarten erantzunak, edo haie-tako zenbait— gordetzen da eta, bestalde, badakigu hiztegiaren bigarren kopiari falta zaion lehen zatia Oihenartek eskuartean izan zuela (Kerejeta 1991).

(30) Bere jaioterriko ehundaka hitz luzatu zizkion hiztegia hornitzeko (Lakarra & Urgell 1988: 103).

Carreter 1981: 111). “Cédula” hauek egun “fitxa” deitzen ditugunak dira. Halakoak asmatu zituenak —nago ezezaguna dela, halaz ere— hiztegegintzarako arroberaren pareko asmakuntza egin zuen, goikoa baino eta, ziurrenik, imajina dezakegun beste edozein eskuzko sistema baino askoz arin eta erosoagoa baita. Ordenagailuz betetako mundu honetan ahaztuxe bide dugu duela 10-20 urte, ez gehiago, edozein buru-lan egiteko ezinbestekoak zirela: paper-zati haiek, pilak ordenatzen orduak eta orduak eman eta gero zapata zein harilko-kutxetan gordeta, Mitxelenaren, Umandiren zein Mokoroaren hiztegi erraldoiei —berri eta gure batzuk baino ez aipatzearren— oinarri eman zieten.

Alabaina, fitxa bera ere berandu xamar sartu bide zen euskal lexikografian: eza-gutzen dudan lehenengo erabilera (gazt. “billete” izenez), Aizkibelena, 1828-1829an data daiteke (Urquijo 1933: 452) eta, dena dela, nekez sinets daiteke Larramendi berrikuntza hau erabiltzera iritsi zenik. Esateko moduan ez dakigu ezer bere lan egiteko formaz, ezpada berak eskuz egingo dela, zehazki inoiz idazkaririk baliatu ez zuela esana utzi baitzuen (*Autobiografía* 41). Haatik, badugu beste lekuko bat: *Euskara-Gaztelania Hiztegi* bukagabea (hemendik aurrera EGH).

Altunak (1967: 142-143) kontatu zigun bezala, 112 orrialdeko eskuizkribua da, gaur Loiolako artxiboan gordea. Orrialde bakoitzak, argitalpenean ageri den bezala, buruan AB erako izenburua darama, eta hauetako batzuk orrialde batean baino gehiagotan errepikatuta agertzen dira. Hitzak hiru zutabetan banatuta daude, batzuetan zutabeak zeharo bete gabe. Beraz, HH-an hitzak irakurri ahala zegokien orrialdera aldatzen zituela dirudi, euskararen arabera ordenatzeko lehenengo bi letrak baino kontuan izan gabe. Hauxe izan zen, gutxi gorabehera, Altunak eman zion interpretapena.

Eraz frogatu daitekeen zerbait da. Labur beharrez, har ditzagun lau orrialde bukagabe, eta HH-arekin erka. Ezkerretara EGH ematen dugu, dagoen-dagoenean; eskuintara, HH-ko sarrera-hitza eta EGH-koari dago(z)kion euskal ordaina(k) bakarrik. Bataren eta bestearen ordenak bat ez datozenean (*zuentaria-zucendu-zureutsi-n* gertatzen den jauzi ttiki-ttikia kontuan izan gabe), marra luze bat ezarri dut, hipotesia gezurta lezaketen datuak direlako:

EGH

AH

Aborratu, ahorrar.

Aburra, la mano casi cerrada y también puño cerrado.

Abalea, ánade.

Abalca, *abalquea*, verguenza.

Abalcatu, *ahalquetu*, avergonzar, -se.

Abumena, bocado.

Aberia, canción.

Abacoa, cognación.

HH

Ahorrado así, *aborratua*.

Ahorrar, (...). En este sentido viene de el Bascuence *aborra* u *ahurra*, (...) la mano medio cerrada, como de quien guarda y retiene algo.

Anade, *abalea*.

Avergonzar, *ahalquetu*, *abalcatu*.

Bocado, *abumena*.

Canción, *aberia*.

Cognación, *abacoa*.

Abala, icus *ala*, *abal*, *al*.
Abanci, olvidar.
Abanzcor, olvidadizo.
Abaranza, conversación.

Conversacion, *abaranza*.

AO

Aoa, boca; *aocada*, bocanada.
Aosoca, barboquejo, bozo, bozal.
Aorequia, bobo, bausán, boquiabierto.

Barboquexo, *aosoca*.
 Bausán, bobo, de boca abierta, *aorequia*.

Aoboa, boato en la voz.
Aomena, bocado.
Aoburnia, bocado del freno.
Aocoa, bocal; *otoitz aocoa*, oración vocal.

Boato en la voz, *aoboa*.
 Bocado, *aomena*.
 Bocado, *aoburnia*.
 Bocal, *aocoa*, como oración bocal, *otoitz aocoa*.

Aotzayoa, bocina; *antzayoa*.
Aoquitza, boqueada.
Aoquitu, boquear.
Aochabala, boquiabierto.
Aochimurra, boquifruncido.
Aochacona, boquihundido.
Aozabalca, bostezo.
Aozabalca egon, bostezar.
Aoputzua, brocal del pozo.
Aocanoya, cerbatana para tirar y hablar.
Aosapaya, cielo de la boca.
Aozqueria, cuchillada.
Aocadura, dentadura.
Aocarucada, dentellada.
Aocarutua, dentellado.

Bocina, *antzaioa*.
 Boqueada, *aoquitzea*.
 Boquear, *aoquitu*.
 Boquiabierto, *aochabala*.
 Boquifruncido, *aochimurra*.
 Boquihundido, *aochacona*.
 Bostezo, *aozabaltzea*.
 (Estrá) bostezando, *aozabalca dago*.
 Brocal de pozo, *aoputzua*.
 Cerbatana, *aocanoya*.
 Cielo de la boca, *aosapaya*.
 Cuchillada, *aozqueria*.
 Dentadura, *aocadura*.
 Dentellada, *aocarucada*.
 Dentellado, *aocarutua*.

BRO

Broqueldu, abroquelarse.
Broquela, broquel.
Broturi, *broturitu*, manar, brotar.
Brocela, carro de mimbres.

Abroquelarse, *broqueldu*.
 Broquel, *broquela*.
 Brotar, manar, *boturi*.
 Carro, hecho de mimbres, *brocela*.

ZU

Zucena, derecho, acción.
Zucemena, aderezo.
Zuganatu, *zeuganatu*, *zureganatu*,
zeureganatu, adherir, llegarse
 a ti, apuntar a ti.
Zuenganatu, *z[e]juenganatu*, adherir,
 llegarse a vosotros, apuntaros.
Zulatu, agujerar.

Acción, derecho, *zucena*.
 Aderezo, *zucemena*.
 Adherirse a ti, *zu*, *zeuganatu*, *zure*,
zeureganatu.
 Adherirse a vosotros, *zuenganatu*,
zeienganatu.
 Agujerar, *zulatu*.

- Zuloa*, agujero, hoyo.
Zurtu, ajuiciar, hacerse prudente, cauto, guardado, sabio.
Zumardia, *zumarradia*, *zuaiztia*, alameda, arboleda.
Zumarra, álamo, negrillo.
Zumintza, linaloe, árbol.
Zumeotarrea, *zumesasquia*, altabaque, cestillo de mimbres.
Zucuruztu, amedrentar.
Zuarria, amianto, alumbre de pluma.
Zuretu, *zeuretu*, hacerlo tuyo, apropiartelo.
Zeurendu, *zeiüendu*, hacerlo vuestro, apropiaroslo.
Zucentaria, apuntador, asestador.
Zucendu, apuntar, asestar, dirigir, enderezar.
Zureutsi, *zureustetu*, apuntalar, apoyar con vigas.
Zuaizta, árbol.
Zuaiztia, arboleda.
Zuaritza, árbol, roble bravo.
Zuariztia, arboleda de árboles bravos.
Oncia zuaiztu, arbolar el navio de mástiles.
- Zucelecua*, archivo.
Zucelecuan gorde, archivar.
Zucelecuaaren zaya, *zaina*, archivero.
Zuralá, armadia.
Zuspildu, arrugar, se.
Zulcatu, icus. *artisteac*.
- Zurrá*, prudente, cuerdo.
Zurtu, assessar, hacerse prudente, cuerdo.
Zuhurtu, idem.
Zucembaguea, avieso, perverso.
Zuresia, balaustrada de madera.
Zulepaquia, barranco.
Zuricoa, blanca, moneda.
Zuria, blanco.
- Agujero, *zuloa*.
Ajuiciar, entrar, hazerse juicioso, *zuburtu*.
Alameda, *zumarradia*, *zuaiztia*.
- Alamo, *zumarra*.
Aloe, linaloe, *zumintza*.
Altabaque, *zumeotarrea*, *zumesasquia*.
- Amedrentar, *zucuruztu*.
Amianto, *zuarria*.
Apropiartelo tu, *zuretu*.
Apropiaroslo vosotros, *zeuretu*, *zeuendu*.
Apuntador, con escopeta, *zucentaria*.
Apuntar, asestar, *zucendu*.
Apuntalar, sostener con puntales, *zureustetu*, *zureutsi*.
Arbol, *zuhaitza*.
Arboleda, *zuaiztia*.
-
- Arbolar el navio (...) de mástiles, *ontzia zuaiztu*.
Archivo, *zucelecua*.
Archivar, *zucelecuan gorde*.
Archivero, *zucelecuaaren zaya*.
Armadia, *zurala*.
Arrugar, *zuspildu*.
Assentar piedras preciosas los Plate-ros, *artisteac zulcatu*.
-
- Assessar, *zurtu*.
Assesar, *zuhurtu*.
Avieso, *zucembaguea*.
Balaustrada, *zuresia*.
Barranco, *zulepaquia*.
Blanca, moneda, *zuricoa*.
Blanco, *zuria*.

Begibistan dago ia sarrera guztiak *HH*-aren hurrenkera berberean hartuak direla. Badira, halere, jatorrizko ordena estaltzen duten gertakari batzuk:

1) Batzuetan *HH*-an sarrera-hitza den erdal hitzaren aurrean —edo haren orde— esanahikide bat ezarri du (*broturi*, *zucena*, *zumintza*, *zuretu*, *zeurendu*), jadanik Lakarrak (1993: 327) ohartu bezala.

2) Hitz batek beste hitz bat ekarri dio burura. Birritan aditzak erroan daukan izentia gogorarazi dio (*abalcatu*, *abalquetu* “avergonzar”-ek *abalca*, *abalquea* “vergüenza”, *zurtu* “assessor”-ek *zurra* “prudente”) eta behin elkartu batek eragin bera izan du (*aosoca*-k *aoa*). Azalpen beretsua emango nioke *zuaizta*-*zuaiztia*-*zuaritza*-*zuariztia* segidari; alabaina, azken biak (ikertu gainerako hitz guztiak ez bezala) ez daude *HH*-an jasota eta, beraz, itxurak (eta etorkiak) azal litzakeen arren, nabarmena da iruzkin filologiko konplexuago baten beharrea geratzen direla.³¹

3) Azalpen errazik ez duten hiru hitzak elkarren ondoan daude, *abacoa* “cognación” eta *abaranza* “conversación” artean kokatuak: *abala*, *abanci* eta *abanzkor*. *HH* osoan zehar *aba*- hasiera daukaten hitzak gehiegi ez izanik,³² baliteke Larramendik buruz —segida osatzeko— idatziak izatea, euren aldamenetan agertzen diren biak baino *abala* eta *abanci* (eta honen haritik *abanzkor*) askoz arruntagoak dira eta.

4) Bada ezustekoren bat ere: *autzaioa* > *aotzayoa*, *autzayoa* “bocina”, *aotzabaltzea* > *aotzabalca* “bostezo”, *boturi* > *broturi*, *broturitu* “brotar”, *zuburtu* > *zurtu* “ajuiciar”, *zumarradia* > *zumardia*, *zumarradia* “alameda”, *zeuretu* > *zuretu*, *zeuretu* “apropiártelo”. Hiztegi berria, beraz, derradan bide batez, ez bide zen zaharraren kopiatze akritikoaz tajutzen, eransketaz, autozuzenketaz eta aukera berriz baizik.

EGH-ak eskaintzen digun lekukotasuna gutxi balitz, hona hemen *HH*-aren hitzaurrean, gerora egiteko uzten zuen bihurketa hartaz mintzo dela, hain zuzen, Larramendik (1745: xliii) dioena: “...pues leyéndolas [hitzak] en este Diccionario, y teniendo dispuestos los pliegos y quadernos necesarios, las pueden ir escribiendo en la Letra y combinación que les toca”; hau da, deskribatu dugun sistema berbera.

4. Aurkezpen grafikoa

Itxuraren aldetik *DAut* eta *HH* oso hiztegi ezberdinak dira, begi aurrean izan dituen orok dakien bezala. Hitz gutxitan esateko, ez bata ez bestea dira oraingo hiztegien modukoak, baina Larramendiren hiztegia askoz urrunago dago. Hau ez da funtsik gabeko xehetasun bat.³³ Tipografia, inprenta jaio zenetik, hiztegiileen lagungarri ezinutzizkoa izan da, hiztegian beharrezkoak diren hainbat bereizkuntza egiteko aukera ematen baitie. Hiztegi erabiltzaileok, berriz, hari esker erraz murgiltzen gara hiztegietakori orrietan zehar; baina, bizitza eroso egiten diguten zer gehienekin gertatu ohi den bezala, jakintzat ematen dugu, zertan datzan gehiegi hausnartu gabe.

Hiztegiren bat hasi eta buka irakurri duenik —edo hartan saiatu denik— denok ezagutzen bide dugu, baina, egia esan, salbuespenak baino ez dira: eskuarki hitzak banaka bilatzen ditugu, behar ahala, eta hartan ari garela begiek orriak goitik behera

(31) Azkuek *zuarizti* sarrerapean Arakistain aipatzen duenez gero, bertara jo dut eta ekarri badakar: “Roble eminado y alto para fábricas de casas y navíos, *zuaritza*, g.” (Fita 1880-1881: 51, 369. zb.). Larramendik *EGH*-an Arakistainen eranskina baliatu zuela esateko gutxiegi da baina, erreferauak dioenez, *gutxika-gutxika*...

(32) Orotara 36 zenbatu ditut, baina denak zortzi taldetan utz daitezke: *abalke*-ren familiakoak (12 osagai), *abal*-enak (6), *abaika*-renak (5) eta *abanzi*-renak (5) dira handienak.

(33) Azalpen eta adibide gehienak Bray 1989a-tik atera ditut, eta terminologia eta teknikako xehetasun zenbait Martínez de Sousa 1981 eta Dreyfus & Richaudeau 1990 lanekin osatu.

igarotzen dituzte, ez ezker-eskuin (edo eskuin-ezker, kulturen arabera), irakurketa arruntean bezala. Banaka bilatze horretara zuzenduta daude, hain zuzen, hiztegiaren ezaugarri tipografiko gehienak.

Lehenik eta behin, behar dugunera iristeko daukagun bitartekoa “sarrera” deritzona —hitzari buruzko informazioa biltzen duen atala— da: honexegatik sarrera erraz antzeman daitekeen moduan apailatu beharra dago. Erraztasuna bi aldetatik etortzen zaigu: sarrera zein orrialdetan dagoen asmatzen laguntzen duen zerbait izatetik, eta gainerako testutik ongi bereizia eta grafismo egonkor batez —beti bat eta beraz—markatua egotetik.

Bigarren, sarreraren barruko informazio-mota ezberdinak ez dira denak maila berekoak: adierak, erabilera, esapideak, adibideak, etab. hierarkizatuta daude berez, eta tipografiak hierarkizazio hori nabarmenarazten duen tresna da.

4.1. Alfabeto hurrenkeraren bilaketa: izenburutxoak

Hiztegiak inprimatzen hasi zirenetik eta XIX. mendearen bukaera arte, irakurlea bilatzen ari dena zein orrialdetan dagoen asmatzen laguntzeko erabilitako sistema fr. *lettrines* eta gazt. *titulillos*, hots, “izenburutxoak” ziren, hau da, orriaren goialdean jarritako letrak (hitzak edo hitz-zatiak, hiztegien arabera). Egun ere, Europako hiztegi gehienek berbera baliatzen dute, hobekuntza batzuekin; Estatu Batuetan, berriz, eskuarki azkazaltxoak (fr. *onglets*), hots, liburuaren ertzean egindako azkazal itxurako (zirkuluerdi-formako) ebakidura batzuk erabiltzen dituzte letra bakoitzaren hasiera markatzeko.

XX. mendea baino lehen izenburutxoek, ezarrita dauden zutabeen agertzen den lehenengo hitzaren hasierako letrak (bizpalau) iragartzen zituzten: zenbat zutabe, hainbat izenburutxo orrialdeko. Sistema ez zen erabat zehatza zeren eta, alde batetik, zutabeen zehar aldaketak gertatzera ez baitzuen haien kontu ematerik eta, bestetik, zenbait letra-taldek orrialde mordoia besarkatzen baitzuten: sarrerak gutxi gorabehera aurkitzeko bidea zen. XVII. mendean zehar, sarreraren kokalekua zehazten berrikuntza batek lagundu zuen: orrialde barruko izenburutxoak, zutabe barruko aldaketan berri emateko ezarriak, hain zuzen. Barruko izenburutxo hauek Frantzia XIX. mendearen bigarren zatira arte (Akademiaren hiztegiaren 1878ko argitalpena arte) ikusten dira; hasierako letrekin osatutako goialdeko izenburutxoa, berriz, gutxikagutxika desagertzen da XIX. mendearen bukaeran, eta gaur egun ezagutzen dugun goialdeko izenburutxo motak (eskuarki orrialdeko lehen eta azken hitzak aipatzen dituen) ordezkatzen du.³⁴

Gure bi hiztegiak izenburutxodunak dira. *DAut*-ek zutabe bakoitzeko hiru letrako sekuentzia (ABC hurrenkera) eskaintzen du orrialdearen goiko aldean, batetik; bestetik, zutabe barrukoak ere baditu, bi letrakoak. Larramendiren goialdeko izenburutxoek, berriz, AB segida baino ez dute kontuan hartzen, barrukoak bezalaxe: orainago ikusi dugu bi letrako hurrenkera izan zela lan egiterakoan ere baliatu ohi zuten neurria.

(34) Ik. Quemada 1967: 331-333, hiztegi frantsesetako izenburutxoaren bilakaeraz.

4.2. Sarreraren bila: frantses lerrokada

Asmatu zenetik (1815 inguruan) eta gaur arte, letra beltzak sarrera-burua bereizteko papera izan ohi du, berez aski baita goitik beherako irakurketaren geltokiak markatzeko. Horrelakorik ez zegoenean, ostera, zutabeen forma irregulartzera jotzen zen asmo berarekin. Gure bi hiztegiek ederki ordezkutzen dute erabiliena: fr. *débord* “(ezker aldetiko) gainezkatzea”, gazt. *párrafo francés* eta ing. *french paragraph* “frantses lerrokada” deitzen dutena da, hots, sarrerako karakter batzuk zutabeko ezkerreko ertzaren ezkererantz aurreratzea edo, bestela esanda, hasierako lerroa izan ezik gainerako guztiak sangratzea. Adituen ustez, prozedura hau oso onuragarria da ezkerretik eskuinera irakurtzen dugunontzat, ezker-ezkerrean dagoena azkarren antzematen duguna baita.

4.3. Sarrera eta sarrera barruko informazioa: letrak

Behin sarrera aurkituez gero, gainerakoari dagokionez, ideala letra mota bakoitzari betebeharrak jakin eta bakar bat egokitzea da. Idealak, baina, gutxitan lortzen diren gauzak dira, are hiztegi berrietan ere. Ez gaitu harritu behar, beraz, hiztegi zaharretan araua behar bezain ongi ez beteak. Osterantzean, garaiaren eta lekuaren arabera betebeharrak bakoitzerako erabiltzen diren konbentzioak aski aldakorrek dira.

Gaur egun, hiztegi batek eskatzen dituen bereizketak hiru bidez egin daitezke: letraren formaz (borobila vs etzana, larria vs xehea), tamainaz (teknikoki “gorputz-indarra” deitua) eta kolorearen intentsitateaz (erdi-beltza, beltza, oso beltza). Alabaina, azken bidea oso berria da: jadanik ikusi dugu letra beltza zeinen berandu sortu zen. Formaz eta tamainaz joka zezaketen, beraz, hiztegiak zaharrek. Esate baterako, Cockeram-en ingelesezko hiztegian (1623) aditzak *to-z* (*to Rob*) eta izenak artikuluaz (*a River*) markatuta agertzen dira sarrera-buruan, eta honek alfabeto hurrenkera begiei ezkutatzeko arriskua zeukan; hitz hasierako letra larriak, hortaz, hurrenkera berreskuratzeko eta begietaratzeko zeregina zeukan (Osselton 1989: 169). Hiztegi-gintza tradizio berean, berriz, sekulako berrikuntza izan zen Johnson-en hiztegian (1755) lehenengoz sarrera-buruak versalez (hitz nagusietarako) eta versal txikiak (elkartu-eratorrietarako) bereizita egotea (Osselton 1989: 171). Azken xehetasun hau garrantzizkoa da guretzat, zeren eta ari garen garaikoa baita, gutxi gorabehera.

DAut-en alderdi hau aski zaindua dago: lau letra tipoz baliatzen da (versal, versal txikia, borobila eta etzana), bakoitza bere zeregin(ar)ekin. Sarrera-hitza versaletan dago; bigarren mailako adierak, berriz, versal txikitik, hala nola hitz beretik hasten diren esapide eta erretratuak ere; beste hitz batez hasten direnak, berriz, txiki borobiletan, eta haien barruan sarrerako hitza etzanez azpimarratuta. Latinezko ordaina etzanetan, beti “Lat.” laburduraren ondoren. Testuan, normalean etimologiazko azalpenetan, etzanetan agertzen dira beste hizkuntzetako hitzak (latina, grekoa, etab.); aipatzen diren gaztelaniazkoak, ordea, borobiletan egiten dira, lehena letra larria izanik gehienetan. Adibideak, idazle-liburuei dagozkien laburduren ondoren, borobiletan daude, sarrerako hitza letra etzanez azpimarratuta; bertsoak direnean alderantziz jokatzen da, berezko duten lerroz lerroko aurkezpena gordeaz, gainera. Azkenik, sarrerako atal bakoitza, den adiera, esapidea edo erretratu, gainezkatzeaz —frantses lerrokadaz— markatuta dago.

Gainezkatzearen eta lerrokada bakoitzaren hasierako letra tipo ezberdinen bitartez, irakurleak begi-ukaldian sarrera non hasi eta non bukatzen den ikus dezake, baita sarrera barruan maila ezberdin zenbait antzeman ere. Hala eta guztiz ere, sistema hau, akats batzuk izateaz gainera —ohartu borobil eta etzanek balio gehiegi dituztela—, oso erredundantea da oraindik: sarrera-hitza hamaika bider errepikatuta ager daiteke, behin versaletan, gainerakoetan versal txikitan; grafismoak, gainera, ez du *per se* erabateko baliorik; adieren azalpenak honelatsu hasten dira maiz: “Significa tambien...”, “Vale tambien...”, “Se llama tambien...”, “Con esta palabra se significa tambien...”, etab.

Hitz baten adiera guztiak atal berean, sarrera bat eta bakarraren azpian sartzea, beren arteko bereizkuntza zenbakien bidez eginaz, nahiko sistema berria da. Ingelesez jadanik Benjamin Martin-ek (1749; Osselton 1983: 13 eta 18) erabili bazuen ere, gurean ez da antzekorik ikusten XIX. mendearen bukaera-bukaera arte, Maurice Harrieten hiztegitara arte, alegia; argitaratuen artean, oso oker ez baldin banago, Azkuerena da lehena. Hori baino lehenago, Aizkibel (1883) eta Fabrén-ren (1870) hiztegietan barra bikoitza (gazt. *doble pleca*) dago adierak bereizteko, eta van Eysenean (1873) marra luzea.

Larramendiren sistema anitzez bakunagoa da alde guztiz. *DAut*-en sofistikaziotik lerrokaden gainezkatzeak bakarrik irauin du bere hartan. Bi letra tipo baino ez ditu baliatzen, borobila eta etzana, eta *grosso modo* etzanak euskara seinalatzen du, borobila ezertarakoa den bitartean. Letra larria ere agertzen da, baina oso betebehar mugatuaz eta goian aipatu bereizi beharrekin batere loturarik gabe: borobil xeheari egokitzen zaion larria (8 puntukoa)³⁵ darabil ohar berezi batzuen izenean (“NOTA” deritzenetan, hain zuzen),³⁶ gorputz askoz handiagoko tipo bat (21 puntukoa) letren aldaketa iragartzeko (DE LA LETRA A, etab.) eta hau baino txikixeago den bat (17 puntukoa) letra barruko azpiatalen izenak (AB, AC...) adierazteko.

Letra tipo bereizgarrien urriak oso ondorio nabarmenak ditu Larramendiren hiztegian:

1) Sarrera-hitza ez da sarrerako gainerako testutik bereizten lehenengo begiradan. Aitzitik, euskarazko ordainak baino lehen gaztelaniazko ezer gehiago agertzen den oro, irakurri egin behar da, iruzkindutakoa eta iruzkina nondik nora doazen somatzeko. Honek zenbaitetan zalantzak zor ditzake irakurlearengan, gaztelania (edota euskara) noraino menperatzen duen eta horren arabera: tipografikoki ez dago jakiterik, adibidez, “Más, mucho más” bezalako hasiera batean³⁷ *más, mucho más* osorik erabiltzen den esapidea ala *mucho más* esapidea bakarrik adierazi nahi izan den, edo “Broza de impresores” bezalakoan gaztelaniazko esapide bat ala *broza* hitzaren adiera berezi bat ordezkatu nahi den.

(35) Faksimileak —eta eskarmentu gutxi izanak— engainatzen ez baldin banau; balio beza ohar honek ondoan doazen gainerako neurrietarako. Nire irakaslea Bandry (1993: 2337) izan da.

(36) Hiztegitiko zenbait sarreraren ondoren agertzen dira, bakanki, azalpen bereziak emateko. “NOTA” izenburutxoaz gainera, ez dira ezertan ere bereizten zutabeko gainerako informaziotik. Ik. Urgell 1998: § 3.3.4.

(37) Adibidea *Eranskin*-etik hartu dut, une honetan —gertatu ohi den bezala— ez baitut *HH*-an alerik aurkitzea lortu.

2) Hierarkizazioa lortzeko baliabideen urriak eraginda, *DAut*-en mailakatuta zeuden item-ek inolako bereizkuntza grafikorik gabe lehengo hurrenkeran diraute. Ezinezkoa da lehen begi kolpean benetako sarrera nondik nora zabaltzen den antzematea. Ez du adieren arteko lotura ohartzeko tresna grafikorik³⁸ (1), ez eta hauen eta esapide zein erretrauen artean bereiztekorik (2): denak ezkerretarantz gainezkatuta eta letra txiki borobilez ematen ditu. Inoiz iruzkinak berak ere gainezkatuta daude (3):

- | | |
|---|---|
| (1) Assentar, presuponer... | (2) Asno... |
| Assentar, por tomar o dar asiento... | Asno salvage... |
| Assentar pazes... | Caer de su asno... |
| Assentar, anotar... | Asno con oro, alcánzalo todo... |
| Assentar en la Cantería... | Asno de muchos, lobos le comen... |
| Assentar piedras preciosas... | A asno tonto, harriero loco... |
| Assentar bien o mal una cosa a alguno... | Al asno muerto, la cebada al rabo... |
| | No se hizo la miel para la boca del asno... |
| (3) Assemejarse, <i>irudin</i> ... | |
| Véanse en el verbo <i>parecer</i> los irregulares de el <i>irudin</i> ... | |

3) Borobil xeheak, orotara, bost lan ezberdin ditu: sarrera-hitza, gaztelaniazko azalpen arrunta, gehigarriko iruzkinak, adibideen erdal bertsoak eta latina. Oro har, erdarak markatzen dituela esan daiteke, hori zerbait esatea balitz. Latina bereizten duen marka bakarra, *DAut*-ek ere darabilen "Lat." laburdura da. Ikus dezagun adibide bat:

Acaso, adverbio, unas veces viene con duda, *bearbadá, nabasqui, noasqui, noasquiro, aujaz, ausaz, ausa, menturaz, aguian*. Lat. Forsan, forsitan, fortassis, fortasse. Acaso no es verdad, *bearbada eguia ezta, noasquiro eguia ezta, eguia ezta ausa, &c.*

4) Etzan xeheak ere lau betetzen ditu, baina, borobilak ez bezala, ez dira denak maiztasun berekoak. Lan nagusia, inolako ezpairik gabe, euskara markatzea da, bai euskal ordainetan baita adibideen euskal bertsoetan ere, goiko adibidean ikus daitekeen bezala.

Maiztasun ezberdinez, baina ez beti-beti, (1) bildaketa-deietako erreferentzi hitzak, (2) etimologietan aipatu edozein hizkuntzatarako hitzak, eta (3) literatur adibideetako erreferentziak azpimarratzeko balio du:

- (1) Obtestación, véase *protesta*.
- (2) Calabaza (...) y de aquí viene el Latín *cucurbita*, y...
- (3) Desperpentar, cortar, llevarse de un golpe, arrancar, cortando con violencia, *zatautsi, beingoan epaqui*. Lat. (...). *F. Juan de Santa Maria Relac. de los Martyres de el Japón cap. 5. Y a quatro hachazos...*

(38) Era ezberdinetako baliabideak (hala nola gaztelaniazko azalpenak edo zehaztapenak, batez ere) erabiltzen ditu, bat ere ez formarekin, tipografiarekin, lotuta. Honetaz, ik. Urgell 1999a: § 4.1.

Baina, (1) A letran bederen askotan huts egiten du; (2) gehienetan borobilez agertzen dira (cf., adibidez, *absorto*, *vello*, *veloz*); eta (3) *HH*-an zehar halako beste bat bakarrik aurkitu ahal izan dut (s.v. *hoya*), eta laburduraz emana egoteaz gainera borobilez dago: “Ambr. Mor. lib. 9. cap. 7”.

Aurkezpen grafikoaren aldetik, beraz, ereduak eragin gutxi izan zuen *HH*-an: begien aitzinean garaiko hiztegirik landuenetakoa izan arren, Larramendi aurreko mendeko eta are lehenagoko hiztegi zenbaitek bakarrik aurkezten duten bereizkuntza maila txikira baino ez zen iritsi: adibidez, Francisco del Rosal-en hiztegi etimologikoa (c. 1601; ik. Carrasco 1992: 84) eta Covarrubias (1611; ik. von Gemmingen 1992: 25) gaztelaniazkoen artean, eta katalanez Busa-ren *Lexicon* ere (1507; ik. Colon & Soberanas 1985: 60) honelatsukoak dira. Hiztegi arkaiko xamar hauetan, *HH*-an bezalaxe, hiztegi modernoetan goitik beherako irakurketa errazteko makroegiturari (hiztegiaren antolakuntza orokorra) edo mikroegiturari (sarreraren antolakuntza) dagozkien ezaugarri bereziak elkarrekin —nahasita— agertzen dira (Colon & Soberanas *loc. cit.*).

Alabaina, *DAut*-ek aurkezpen grafikoan dituen abantailak guretzat bezain argiak izan behar ziren berarentzat ere. Bestelako arrazoiak bilatu beharko genituzke, beraz, Larramendiren jokabidea ulertzeko. Baliteke, adibidez, diruak baldintzatuta egotea, baina alderdi askotatik ez zait iruditzen erabakigarria izan zenik. Ez dakigu ezertxo ere Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu zuen betebeharrak, liburua ordaindu zuela izan ezik; ez dakigu, beraz, dirulaguntzari mugarik ezarri zion ala ez, baina hurrengo mendeko lanez dakigunaren arabera³⁹ egin daiteke ordaintzeko erabakia originala eza-gutu ondoren hartu zuela eta, ziurrenik, argitaratzailearen faktura ordaintzera mugatu zela. Nolanahi ere den, ez dago pentsatzerik versal batzuek liburua garestituko zutenik, gainezkatzea lan zail eta garestia den bitartean (Bray 1989a : 139).

Egia da, bestalde, euskal eredu falta nabarmena jasan zuela. Lanaren bukaeran baino ikusi ez zituen Harrieten hiztegitxoek, berriz, ez dauzkate *HH*-aren zailtasun gehienak, zeren eta hizkuntz hiztegi huts-hutsak izanik (“hiztegi itzultzaile” deritzenetakoak), aski baitu hizkuntza bakoitzeko letra mota batez adieraztea: zehazkiago, bai euskara-frantsesa bai frantsesa-euskara hiztegian, frantsesa etzanaz agertzen da eta euskara borobilaz. Ohartzekoa da, ostera, hemen ere aurkitzen dela *HH*-an azpimarratu dugun desegokitasunetatik bat, alegia, item-ek hierarkiaren aldetik bata bestearen menpeko diren gauzak maila berean aurkeztea: (1) aditza vs partizipioa; (2) genero ezberdinak; (3) erabilera ezberdinak; (4) hitza vs haren erabilera edo adibideak; eta (5) adiera ezberdinak:

- (1) abandonatcea, largatcea, *abandonner*.
largatua, *abandonné*.
- (2) adisquidea, *ami*, *m*.
adisquidea, *amie*, *f*.
- (3) á la mere, *amari*.
á faire, *equiterat*.

(39) Ik. Urgell 1995: xxii-xxxii, Aldundiak Lardizabalen eta besteren lanekiko izan zuen jarreraz.

- (4) abri, *leiorra, malda*.
 a l'abri, *maldan, estalgunan, atherian*.
accusser, acusatcea, gaineguitea.
 il m'a accusé, *ene gain eguin du*.
- (5) esperer, *uste içatea*.
 esperer, *iguriquitcea*.

Azalpena —edo azalpenaren zati bat— eskarmenturik eza izan daiteke, beraz. Halaz ere, oso egiantzekoa dirudi erabilitako argitaletxearen mugak izateak. Gogora dezagun Gipuzkoan inprentak ordura arte zeukan historia laburra:⁴⁰ Larramendiren hiztegia izan liteke, oso erraz, Riesgok egin zuen lan handi eta zailena.⁴¹

Edonola ere, ezin dugu erantzukizuna Larramendiren bizkar gainetik zeharo kendu. Letra bereizgarri bakarra, etzana, baliatu zuen, ia bakarrik euskara markatzeko erabili ere, ikusi dugun bezala. Gurxieneko baliabideekin jokatzeraz estututa dagoenean, zuhurra apaingarriak alde batera utzi eta funtsezkoarekin bakarrik gertzen da: eta funtsezkoa *HH*-an euskara da. Tipografikoki, argi eta garbi, *euskarazko* hiztegi kontzeptua erabat indartuta ateratzen da.

Ehun urtez, dakigun bezala, ez da beste euskal hiztegirik argitaratzen eta, beraz, ez eta *HH*-ak planteatzen dituen arazo teknikoei bestelako erantzunik emateko aukerarik ere. Hurrengo argitalpenean —*HH*-aren bigarrenean (1853), hain zuzen— sarreraren bilatze lana itxuraberritu eta erraztu zen, barruko izenburutxoak kendu eta zutabe gainekoak hiru letrataraz hedatuaz; honezaz gainera, bada makroegitura eta mikroegituraren arteko bereizketari dagokion aldaketa garrantzitsu bat: lerrokada sistema mantendu bazen ere, sarrera-burua letra beltzez dago, adierak-eta versal versalitatekin erabiliaz adierazita dauden bitartean.

5. Alfabetatze maila

Lakarrak (1993: 20) gogoratu digun bezala, hiztegiak abeze hertsiaeren arabera ordenatzeko ohitura aski berria da. Ohiturarekin batera, hiztegiak halaxe —eta halaxe bakarrik— izan behar direlako uste okerra ere erabat hedatu da. XVII. mendean, Frantzian, alfabeto hurrenkera *le bel ordre* bilakatzen da, eta *ordre dictionnaire* zein *en forme de dictionnaire* orduko esapideek argi eta garbi adierazten dute berehala alfabeto hurrenkera eta hiztegia zeharo berdindu zirela (Quemada 1967: 328).

Alabaina, XVII. mendera arte hiztegirik usukoenak gramatika kategoria zein alor semantikoen arabera ziren; alfabetoaren arabera ordenatutako hiztegiak gehienez ere AB ordenaraino (hots, lehenengo bi letren arabera) heldzen ziren. Ingelesak, adibidez, ez zuen gehiago erdietsi Cawdrey-en *A Table Alphabeticall* (1604) arte, izen ezin adierazgarriagoaz. Dena den, honetan ez eze geroko guztietan ere (1755eko

(40) Vinsonen lanean *HH* baino lehenago hiru liburu bakarrik agertzen dira Donostian argitaratuak, hirurak Pedro de Uhartre edo Ugartereanean: Luzuriagaren *Paranympho Celeste...*, Arantzazuko santutegiaren historia baten bigarren argitalpena (Vinson 1891-1898: 40b zb.), Zubiaren dotrina (*ib.* 42a zb.) eta Otxoarena (45. zb.).

(41) Hainbat urtez Gasteizen bizi eta lan egin ondoren, Riesgo Donostiara joan zen 1735ean, Aldundiaren argitaratzaile izateko, hain zuzen (Santoyo 1995: I, 74).

Samuel Johnson-ena arte behinik behin) alfabetatze maila ez da hertsia-hertsia, zenbait gertakarik —ez gutxitan ustekabeak— alda dezaketena baizik (Osselton 1989: 169).

Alfabeto hurrenkeraren historia Erdi Aroan hasten da, lehenengo lettraren edo lehenengo bi letren arabera ordenatutako glosarioekin.⁴² Sarrera kopurua handitu ahala, sistema gero eta desegokiago bilakatuaz zihoan; halaz ere, hobekuntzak oso pixkanaka gertatu ziren, eta irakurleak eurak sisteman hezi beharra agerrian dago aitzindarrietan.⁴³ Gure artean, Martin Harrietek honela azaltzen dio irakurle euskaldunari alfabeto hurrenkeraren erabilera:

Seguidan aurquituco dituçu jesueco letrac beçala hitz beharren direnen explicacione edo balioa, escuaraz *atic* hasten diren hitçac lehenic, guero *betic* hasten direnac, eta guero berceac seguida hartan, halatan noiz ere jaquiñ nahi baituçu nola deitzen den *aita* francesez, beha dioçoçu nola hasten den escuaraz hitz hori, eta aurquitcen duçu *ai* hasten dela, goan çaite bada *ai* hitçac hasten diren plamura, eta aurquituco duçu *aita*, *pere*, eta hala eguiñen duçu bercetan ere, hitçac escuaraz hasten diren diccionarioan, eta jaquiñ nahi duçunean cembait francez hitz, aurquituco duçu guisa hartan berean francez hitçac lehenic eçarriac diren diccionarioan... (Harriet 1741: 266).

Bilakaera lasaian, ezpairik gabe, parte handia izan zuten ortografiak eta honi buruzko konbentzioek (Quemada 1967: 324-325 eta Picoche & Marchello-Nizia 1989: 333), ezen hitzen idazkera eta letren hurrenkera ongi finkatu artean oso aldakorra baitzatekeen hitz batek hiztegi alfabetikoan bete zezakeen lekua, agerian denez.

Espainiako akademikoek alfabeto hurrenkera hobetsi zuten, beste era bateko hiztegiak ere (hitz familiaka antolatutakoak, zehazkiago)⁴⁴ hautagai zitezkeela buruan zutela: "...observando rigurosamente el orden Alfabético en su colocación: y assí todas se deben buscar por él, y no por sus raíces y voces primitivas de quienes se derivan, haviendo tenido la Academia este método por más claro" (*DAut* 1726 : vi).⁴⁵

(42) Ik. Hüllen 1989: 109-114, zehaztapen jakingarri batekin: "Admittedly, the alphabetical dictionary (...) outran all the others in the course of history. But this because alphabetisation proved more practical for the needs of dictionary users (...) not because it was *per se* lexicographically more advanced".

(43) Ik. Osselton 1989: 166, Cawdrey-ren azalpeni buruz.

(44) Eta, zehazkiago oraindik, Frantziako Akademiaren hiztegia: "Comme la Langue Française a des mots Primitifs, & des mots Derivez et Composez, on a jugé qu'il seroit agreable & instructif de disposer le Dictionnaire par Racines, c'est à dire de ranger tous les mots Derivez & Composez après les mots Primitifs dont ils descendent..." ("Préface", ap. Finoli 1959: 135). Vauguelas-ek, besteak beste, hurrenkera alfabetikoa zeharo gaitzesten zuen: "...cet ordre Alfabétique ne produit de soy autre chose, que de faire trouver les matières plus promptement; c'est pourquoy il a tousjours esté estimé le dernier de tous les ordres, qui ne contribuë rien à l'intelligence des matieres que l'on traite" (*Remarques sur la langue françoise...*, Paris, 1934, vii ap. Quemada 1967: 333-334). *DAut*-en ereduez oro har, ik. Lázaro Carreter 1981: 102 t. hur.

(45) Egiatan, lehenengo unean hiztegi misto bat egiteko asmoa hartu zuten, alegia, eratorri eta elkartuak behin familiaka eta gero alfabetozko ordenan ezartzea: "Poner las voces primitivas con su Definición u Descripción, y su Etymología; y después las derivadas, compuestas..." (1726 : xvi) eta geroxago: "La explicación u definición, uso y phrases de los Verbos o Voces derivadas o compuestas que se ponen seguidas a sus Raíces, se reservará para dársela en el lugar que les toca del riguroso Alfabeto. Por ser adonde quien las huviere menester, naturalmente las ha de buscar de primera instancia; a causa

Larramendik, bere aldetik, ez zuen gaia agerian ikutu. Jakintzat eman behar dugu, beraz, eta ondoren frogapean jarri, ereduari atxiki zitzaioa.

Izan ere, bi hiztegi antolamendu orokorra bera da, hitzaren lehendabiziko letra-aren arabera egindakoa eta letra berak aintzat hartuta, aurkezpen grafikoa ezberdina den arren: *DAut*-ek “letra loratua” edo “historiatua” deitu ohi denaz irekitzen ditu atalak, honen alboan eta azpian letraren ahoskeraz eta erabilerazko oharrak batzen dituen sarrera bat eginez: “A. PRIMERA letra del alfabeto...”, “B. SEGUNDA letra del Alfabeto...”, etab., “Z. ULTIMA letra de nuestro Alfabeto...” arte. Larramendik, berriz, “DE LA LETRA A”, “DE LA LETRA B”,... “DE LA LETRA Z” izenburuez egiten ditu bereizketak: letrek ez daukate sarrearik *HH*-an, eta letra loratua saileko lehenengo hitzari egokitzen zaio. Hurrenkera konbentzioak, ostera, berdinak dira: bietan CH C letraren barrukoa da (CE-CH-CI), LL L-koa (LI-LL-LO) eta Ñ N-ren bukaeran dator (NY-ÑA-[ÑI]⁴⁶-ÑO-ÑU); halaber, Harrietean ez bezala (Lakarra 1993: 140), I eta J eta U eta V ongi bereizita datoz.⁴⁷ Maila honetan dagoen ezberdintasun bakarra, *HH*-an K letra desagertu izana da.⁴⁸

Bat da, berebat, bigarren mailako antolamendua, letra bakoitzaren barnekoa, beti hitzaren lehenengo bi letren arabera eginga, jadanik ezagutzen ditugun izenburutxoaren bitartez: AB, AC, AD, AE, etab., alfabetatzea bigarren letrarainokoa bakarrik bailitzan. Euskal hiztegietan, zatikaketa bera aurkitzen dugu Urterenean ere (Lakarra 1993: 125), baina XIX. mendeko hiztegi argitaratueta zeharo desagertu da, espero izatekoa zen bezala: ez dago antzekorik ezer van Eys-enean (1873), eta Fabrék (1870) eta Aizkibelek (1883) zutabe gaineko izenburutxoak bakarrik eskaintzen dituzte, hiru letrakoak bietan.

DAut eta *HH*-aren arteko ezberdintasunak hemendik beheragoko mailan, hitzen benetako hurrenez hurrenean hasten dira. Bietan alfabetatze maila ez da erabatekoa, hots, alfabetoa ez da beti eta salbuespenik gabe irizpide bakarra. Honaino berdintasuna. Ezberdintasuna, berriz, honetan datza, alegia, *DAut* hurbilago dagoela erabateko alfabetatzerik *HH* baino. Zeren Larramendi ereduari atxiki zaio baita alfabeto hurrenkera apurtzen zuenean ere, baina zenbait desbideratze berri erantsi ditu. Konpli da, beraz, bi gertakariok zein bere aldetik azter ditzagun.

5.1. *DAut*-ek eragindako desbideratzeak

Atal honetan gertakari sistematikoak bakarrik aztertuko ditugu, hots, jakinaren gainean egindakoak; Larramendiren hiztegiarekiko erkaketak geroago *DAut*-en dau den oharkabeko desbideratzeak agerian jarriko ditu (ik. § 5.4.3).

de ignorar, u de no hacer la bastante reflexión a que son derivadas o compuestas de otras Voces simples o primitivas” (ib. xvii).

(46) Honen azpian agertzen den hitz bakarra, *ñiquiñaque*, ez du Larramendik jaso.

(47) Larramendik bere burua “DE LA LETRA U VOCAL” zehaztera behartuta ikusi zuen, eta ez da harri-garria, bien arteko bereizkuntza gaztelaniaz *DAut*-ek finkatu baitzuen (ik. *DAut* 1726: lxxi eta Lázaro Carreter 1981: 109, batez ere 34. oh.).

(48) K letratik *HH*-ra igaro diren hitz bakarrak C azpian agertzen dira (*calenda*, *calendario*), baina ohartu behar da biok *DAut*-en ere sarrera dutela (“CALENDA. Vease Kalenda”, “CALENDARIO. Vease Calendario”), gainerakoek ez bezala.

5.1.1. *Partizipioak*

DAut-en alfabeto hurrenkerara hausten duten gertakari sistematiko bakarrak partizipioak omen dira, akademikoek hitzaurrean esandakoaren arabera:⁴⁹

del qual [método] sólo se exceptúan los participios de los verbos, porque en ellos para mayor brevedad, y no repetir todos los significados de cada uno (que algunas veces son muchos) se ponen inmediatos a los verbos, no observando en ellos el rigor Alfabético, en cuyo orden varias veces tuvieran lugar mui lejos de sus verbos, y las más antes que éstos, lo que sería de notable desproporción (*DAut* 1726: vi).

Partizipioen eredura eraturako baina bakartuta —hau da, aditzik gabe— agertzen diren zenbait gorabehera (ALFEÑADO, ALFORJADO, etab., Akademiak beti adjektibotzat joak eta alfabetoaren arabera dagokien lekuan sartuak), horixe da, hutsik gabe, *DAut*-ek darabilen sistema; hiztegia nola bakuntzen eta erosoagotzen duen ikusteko, adibide batek bost azalpenek baino argi gehiago egingo digu:

ABALANZAR. Igualar los pesos de la balanza...

ABALANZAR. Acometer de repente...

ABALANZARSE. Arrojar se con ímpetu...

ABALANZADO, DA. part. pas. de este verbo, según sus acepciones.

Interesgarria da, alde honetatik, partizipio irregularretan ere bide berari jarraitu ziotela ohartzea:

ABRIR. ABIERTO. ABROCHADURA...

DECIR. DICHO. DECISION...

FREIR. FRITO. FREMITO...

HACER. HECHO. HACHA...

VOLVER. VUELTO. VOLVIBLE...

Honelako partizipioen erro beretik datozen gainerako hitzak, berriz, beren tokian agertzen dira salbuespenik gabe:

ABEZAR. ABIERTAMENTE. ABIGARRAR...

DICHARACHO. DICHIDO. DICHO. DICHO. DICHOSAMENTE...

FRITILLAS. FRITO. FRITURA...

HECHIZO. HECHO. HECHO. HECHURA...

VUELO. VUELTA. VUESSA MERCED...

Ikusi bost adibideetatik hirutan, partizipioa bera ere bere tokian agertzen da, baina irakurlea infinitibora bidaltzea beste xederik gabe:

DICHO, CHA. part. pass. del verbo Decir. Vease Decir.

FRITO, TA. part. pass. del verbo Freir. Vease Freir.

HECHO, CHA. part. pass. del verbo Hacer. Vease Hacer.

(49) Hemendik aurrera, *DAut*-eko sarrera-buruak letra larriz aipatuko ditut, eta *HH*-koak letra xehez, halaxe izateaz gainera, bien arteko berehalako bereizketa egiten laguntzen digute eta. Bestalde, batean zein bestean, beharrezkoa denean baizik ez ditut aipatzen hitz segidetan bigarren mailako adierak eta esapideak.

DAut-en eraginez, beraz, *HH*-an ere partizipio guztiak infinitiboaren ondoren agertu ohi dira:

Abanderizarse. Abanderizados. // Abandonar. Abandonado. // Abrir. Abierta. Abierto. // Decir. Dicho. // Freir. Frito. // Hazer. Hecho. // Sepultar. Sepultado. // Templar. Templado. // Volver. Vuelto.

Halaber, inoiz edo behin partizipio irregularra berez zegokion tokian errepikatzen da:

Abiar. Abierta, to. Abigarrado. // Fritada. Frito. Friura.

Behin, bi eratako partizipioak jarraian antzeman ditugu batean eta bestean:

POSSEER.	Posseer.
POSSEIDO.	Posseído.
POSSESSO "Segundo part. del verb. Posseer...".	Possesso.
POSSESSION.	Possesión.

5.1.2. -nte atzizkidun adjektiboak

Akademikoek partizipioen sail berean sartu zituzten tradizionalki "participio activo" izenaz ("Part.act." *DAut*-en laburdurretan) ezagutu izan diren *-nte* atzizkidun aditz-adjektiboak⁵⁰ eta, hortaz, hauek ere alfabeto hurrenkera hautsiaz infinitiboaren ondoan ezarri zituzten; agertzen denean, lehen aipatu partizipioaren (*DAut*-en hitzetan "Part.pas." = "Participio passivo"-aren) aitzineko lekua hartzen du "aktiboak". Ordena bera aurkitu ohi dugu *HH*-an ere:

DELATAR. DELATANTE. DELATADO > Delatar. Delatante. Delatado.
 DELEGAR. DELEGANTE. DELEGADO > Delegar. Delegante. Delegado.
 DELINQUIR. DELINQUENTE > Delinquir. Delinquente.
 DELIRAR. DELIRANTE > Delirar. Delirante.
 JUDAIZAR. JUDAIZANTE > Judaizar. Judaizante.
 NAUFRAGAR. NAUFRAGANTE > Naufragar. Naufragante.
 NACER. NACIENTE. NACIDO > Nacer. Naciente. Nacido.
 OBEDECER. OBEDIENTE. OBEDECIDO > Obedecer. Obediente. Obedecido.
 OBSEQUIAR. OBSEQUIANTE. OBSEQUIADO > Obsequiar. Obsequiante. Obsequiado.
 QUEBRANTAR. QUEBRANTANTE. QUEBRANTADO > Quebrantar. Quebrantante. Quebrantado.
 OBSTAR. OBSTANTE > Obstar. Obstante.

(50) Eta adjektiboak bakarrik: etorki bereko izenak dagokien lekuan azaltzen dira: "BATIDOR. BATIENTE. BATIFULLA...", adibidez. Gauza bera gertatzen da aldean aditzik ez dutenekin ere (BALBUCIENTE, kasurako), eta honelakoak "adj." laburdurarekin agertzen dira. Harrigarriago egiten zait ARDIENTE ere dagokion lekuan (eta "adj." laburduraz) agertzea, eta ez bere infinitiboarekin, aipatzen duten lat. *ardens*-etiko etorki zuzenak azaltzen ez badu behintzar. Gorabehera hauek, denak alfabeto hurrenkerraren aldekoak, erantzuna daukate *HH*-an: "Ardidoso", "Ardiente", "Ardientemente"; "Balazo", "Balbucente", "Balcon".

OCURRIR. OCURRENTE > Ocurrir. Ocurrente.
 PADECER. PADECIENTE > Padecer. Padeciente.
 PALPITAR. PALPITANTE > Palpitar. Palpitante.
 QUERELLARSE. QUERELLANTE > Querellarse. Querellante.
 VACAR. VACANTE > Vacar. Vacante.
 VACILAR. VACILANTE > Vacilar. Vacilante.
 VAGAR. VAGANTE > Vagar. Vagante.
 YACER. YACENTE > Yacer. Yacente.

Aurkitu dudan salbuespen bakarrean, partizipio aktiboa dagokion lekura itzulia izan da, ziurrenik *-mente* atzizkidun bere eratorriaren eraginez:⁵¹ “IGNORANCIA. IGNORANTEMENTE... IGNORAR. IGNORANTE. IGNORADO” > “Ignorancia. Ignorante. Ignorantemente. Ignorar. Ignorado”.

Nolanahi ere, badira bataren eta bestearen ereduak zertxobait ezberdinak egiten dituzten gertakari bi. Lehena, hiru osagaien hurrenkera *HH*-an kostata mantentzen dela, partizipio pasiboak oro har aditzari itsatsita jarraitzeko joera handia baitauka, besteak beste:⁵²

AMAR. AMANTE. AMADO > Amar. Amado. Amante.
 DEPONER. DEPONER... DEPONENTE. DEPONENTE. DEPUESTO > Deponer.
 Depuesto. Deponer... Deponente.
 QUEBRAR. QUEBRAR... QUEBRANTE. QUEBRADO > Quebrar. Quebrado...
 Quebrante. Quebrado.
 QUEMAR. QUEMAR. QUEMARSE. QUEMARSE... QUEMANTE. QUEMADO > Quemar. Quemado. Quemarse. Quemante.
 RASPAR. RASPAR... RASPANTE. RASPADO > Raspar. Raspado. Raspar... Raspante.
 VERTER. VERTIENTE. VERTIDO > Verter. Vertido. Vertiente.

Bigarrena, partizipio pasiboa ez dela beti-beti jasotzen:⁵³

ANDAR. ANDANTE. ANDADO / Andar. Andante.
 CADUCAR. CADUCANTE. CADUCADO / Caducar. Caducante.
 OBSERVAR. OBSERVANTE. OBSERVADO / Observar. Observante.

5.1.3. *-se aditzak*

DAut-ek ez du beti jokabide bera gaztelaniaz aski sail ñabarra osatzen duten aditz hauei dagokienez; alde batetik, sarrera nagusi gisa ager daitezke, aditza eta partizipio pasiboaren artean, eta “v.r.” (= “verbo reciproco”) markaz lagunduta:

(51) Honetaz, ik. beherago § 5.4.1.3.

(52) Gaia astiroago aztertuko dugu § 5.4.7.2n.

(53) Partizipio pasiboak *DAut*-etik *HH*-ra bitartean desagertu diren hitz multzoetatik garrantzitsuenetako bat da; anitzek oraindik lekua aurkitu bazuten ere, itxura guztien arabera Larramendi neurri bateraino infinitiboa eta partizipioa sarrera banatan euskarara itzultzea denbora (eta lekua, batez ere) galtzea zela ohartu zen. Ik. honetaz Urgell 1999a: § 1.1.2.

ABALANZAR. ABALANZAR. ABALANZARSE. ABALANZADO. ABALGAR...
 ABANDONAR. ABANDONARSE. ABANDONADO...
 BANDEAR. BANDEAR. BANDEAR. BANDEARSE. BANDEADO...
 QUEMAR. QUEMAR. QUEMARSE. QUEMARSE. QUEMARSE... QUEMANTE. QUEMADO...
 SACRAMENTAR. SACRAMENTARSE. SACRAMENTADO...
 ZABULLIR. ZABULLIRSE. ZABULLIRSE. ZABULLIDO...

Bestetan aditzpean, azpisarrera gisa agertzen dira (noiz versalez, noiz versal rxi-kiz), esapideen aurretik:

CAER. CAER. CAER... CAERSE. CAER A ESTA... CAIDO...
 CALAR. CALAR. CALAR... CALARSE. CALARSE. CALAR EL CAN. CALADO...
 ECHAR. ECHAR. ECHAR... ECHARSE. ECHARSE. ECHARSE. ECHAR A BORBOTONES. ECHA-
 DO...
 ENRISCAR. ENRISCARSE. ENRISCADO...
 EXPLAYAR. EXPLAYARSE. EXPLAYARSE. EXPLAYADO...
 GORGEAR. GORGEARSE...
 GOZAR. GOZARSE. GOZAR DE DIOS... GOZADO...

Bestetan, azkenik, eurak dira burua:

ATUFARSE. ATUFADO...
 AVECINDARSE. AVECINDADO...
 AVEJENTARSE. AVEJENTADO...

DAut-i dagokionez, lehenengo erara bakarrik hausten da alfabeto hurrenkera nagusia, azpisarrerak grafikoki ongi bereizita daudelako, dakigunez: aurretik ez dago inoiz arazorik, baina bai batzuetan atzetik; eman sei adibideetatik bakar batean —aski, ordea— hurrenkerak *sacramentar* - *sacramentario* - *sacramentarse* eskatuko luke. Dakusgunez, hitzaurrean iragarri zutena baino zertxobait gehiago dago hiztegi honetan: *DAut*-en egileentzat aditza forma multzo bat da, infinitiboa, *-se* forma, partizipio aktiboa eta partizipio pasiboa hartzen dituen —edo har ditzakeena— eta infinitiboa da haietatik alfabetozko lekua beti gordetzen duen bakarra.

Esan gabe doa gertakariok ere *HH*-an nolabait islatuta daudela; era ezberdin batean, ordea, *DAut*-en bereizketa grafiko sistema aberatsa ez daukalako, besteak beste. *-se* aditzak oro har hartuta, lau ondorio aurkitu ditut, goian emandako sailkapena aldez bakarrik gogoraraziaz:

1) Infinitiboa eta *-se* aditza, biak eta ordena berean mantendu ohi ditu; hemen ere indarra dauka goraxeago aipatu joerak: hots, batzuetan partizipioa aurreratu egiten zaio *-se* aditzari:

Bandear. Bandearse.
 Caer. Caer. Caerse. Caerle. Caerse. Caerse. Caer malo. Caído.
 Calar. Calado. Calar. Calado. Calar. Calar. Calarse. Calar. Calar. Calar. Calar.
 Calar.
 Echar. Echarse. Echados.
 Enriscar. Enriscarse. Enriscado.

Quemar. Quemar. Quemado. Quemarse.
 Sacramentar. Sacramentado. Sacramentarse.
 Zabullir. Zabullirse. Zabullido.

Haatik, ezberdintasun grafikoak direla kausa, hemen birritan hausten da alfabeto hurrenkera: jadanik ezagutzen dugun *sacramentar*-enari *calar-calarse-calar* (eusk. *lur cararriduna*) segida erantsi behar zaio.

2) *DAut*-eko buru-hitzak ere mantendu egin ditu:

Atufarse. Atufado.
 Avecindarse. Avecindado.
 Avejentarse. Avejentado.

3) Inoiz *DAut*-ekoetatik *-se* aditza bakarrik ezarri du, *HH*-an oro har *DAut*-eko adierak bakantzeko dagoen joerarengatik:⁵⁴ “Abalanzarse”.

4) Bestetan, eta arrazoi beragatik, ez du *-se* aditza jaso:

Abandonar. Abandonado. Abandono.
 Explayar.
 Gorgear.

5.2. *HH*-aren desbideratzeak

Larramendiren hiztegia irekitzea aski da *DAut*-en erabakiak hurrenkeratiko desbideratze bakarrak ez direla ohartzeko; bi lerrokada hartzen duten hitzak bakanduta, 1-2-3-4-5-6-10-11-7-8-9-12 segida “oker” hau daukagu hasiera-hasieran: “A. Aba. Ababol. Abaceria. Abacero. Abad. Abadesa. Abadía. Abada. Abadejo. Abades. Abahar”.

Arazoia geroko utziaz, desbideratze hauen portzentaiak aterako ditut, berriro ere ingelesaren kasua erkagaitzat harturik: kontuan izan bedi Cawdrey-rena (1604) %12tik pixkat beherago geratzen dela eta ondoko hiztegitileena %6-8 inguruan dabilela, mendea bukatu ahala jaitsiaz, baina Johnsonen 1755ekoan oraindik ere zenbait badirelarik (Osselton 1989: 166 eta 168 t. hur.).⁵⁵

Dagoeneko badakigu Larramendiren hiztegian *DAut*-en ereduak behartutako desbideratze portzentaia bat badela. Ez dugu, halaz ere, kontuan hartuko. Zeren erabiltzen ari garen hasierako hipotesiaren arabera hiztegitilearen eredu nagusia ez baita alfabeto hurrenkera, *DAut*-en nomenklaturaren hurrenkera baizik. Beraz, alfabetatzearen hausketak eurak baino gehiago, *DAut*-en ereduari buruzko desbideratzeak dira interesatzen zaizkigunak. Horrexegatik, alfabeto hurrenkeraren kontrako gainerrako okerrak ez eze, *DAut*-en eredu horrekikoak ere (gutziz aditz multzoa apurtzen dutenak) sartuko ditut kopuruetan, geroko ataletan gertakari bakoitzaren nolakoak eta zenbatekoak zehaztuaz.

(54) Honetaz, ik. Urgell 1999a: § 1.2.

(55) Gehiago zehazten du, behetik Blount (1656) —%4'5 inguruan— eta goitik Coles (1676) —%11n— aipatuaz.

Ezer baino lehenago, komeni da orain artean sarrerak kontatzeko erabili dudan neurri eskasa —lerrokada, alegia— dagoeneko utz dezadan, eta alfabetatzea gorabehera *HH*-an sarreratzat har daitekeena definitzen has. Hala bada, hemendik aurrera “sarrera” adigaiari hitz baten adiera guztiak, gehi aldamenean (sarrienik azpian) agertzen diren berari buruzko azalpen, adibide, esapide, kolokazio zein errefrauak sartuko ditut, osagai hauetarik gehienak lerrokada ezberdinetan —eta, dakigunez, bereizkuntza grafikorik gabe— azaltzen diren arren. Aditzei dagokienez, berriz, orainago esana berretsiaz, sarrerak *DAut*-eko ohiko osagaiak ere (infiniteboa, *-se* aditza eta bi partizipio motak) aintzakotzat hartuko ditu.

A letrako lehen 10 orrialdeek (219 sarrera) 41 desbideratze (%18'7) eskaintzen dituzte. Portzentaia, bistan da, garaiko ingelesekin erkatuta oso altua da, altuegia nonbait. Alabaina, aukeratutako corpora ez da inondik ere *HH* osoaren ordezkari on bat, zeren eta jarraian ikusiko dugun bezala, A letra berezia baita hiztegi honetan. Saio bera B-arekin eginez, ondorioak zeharo bestelakoak dira: nahiz sarrera kopurua handiagoa izan (300), birritan (%0'7) bakarrik hausten da alfabeto hurrenkera. H-ren (hots, I. liburukiko azken letraren) lehenengo 253 sarrerak hartuta,⁵⁶ berriz, desbideratzeak 5 (%2) baino ez dira. I-n (II. liburukiko lehen letran), oraindik 417 sarrerako corpus zabalago baten gainean, desbideratzeak 6 (%1'4) dira. Eta, azkenik, Z osorik hartuta, 306 sarreratan desbideratzeak 8 dira (%2'6), altuxeago baina A-rentik oso urruti dagoen portzentaian.

Ikusiak ikusirik, aldagunearen bila A-ra bihurtzen bagara, zati ezberdinak arakatuaz oro har portzentaia letra honetan guztian zehar gainerakoetan baino gorago dabiltzala dakusgu, baina hasierako 40-50 orrialdeetan bakarrik dagoela gorago antzemandakoa, handik aurrera nahikoa txikiagoak diren bitartean. Hortaz, aldaketa B-n gertatu zela baieztatu badaiteke ere, A-ren barruan gerokoa iragartzen duen mailakatze bat dago, hurrengo taulan ikus daitekeen legez, (1) letra edo letra zatia, (2) orrialdeak, (3) aztertutako sarrera kopurua, (4) desbideratzeak eta (5) desbideratze portzentaia jasoaz:

1	2	3	4	5
A 1	I, 1-10	219	41	%18'7
A 2	I, 33-42	252	49	%19'4
A 3	I, 43-52	208	15	%7'2
A 4	I, 53-62	348	20	%5'7
A 5	I, 103-112	298	12	%4
A 6	I, 113-122	275	11	%4
B	I, 122-131	300	2	%0'7
H	I, 408-423	253	5	%2
I	II, 1-10	417	6	%1'4
Z	II, 384-392	306	8	%2'6

(56) *Egin*-en trinkoek betetzen dituzten 7 orrialde inguruko tartea alde batera utzi dut beste letren pareko corpora erdiestearren.

Orrialdeka xehekiago ikus dezakegu:

A1

or.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
desb.	2	1	6	6	2	6	8	3	3	4

A2

or.	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42
desb.	8	8	9	4	3	1	4	6	2	4

A3

or.	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52
desb.	3	2	0	1	3	2	0	0	1	3

A4

or.	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62
desb.	2	1	0	1	1	3	3	5	2	2

A5

or.	103	104	105	106	107	108	109	110	111	112
desb.	3	0	0	0	0	1	1	0	2	4

A6

or.	113	114	115	116	117	118	119	120	121	122
desb.	2	2	1	0	1	0	0	1	3	1

B

or.	122	123	124	125	126	127	128	129	130	131
desb.	0	0	0	0	0	1	0	0	1	0

H

or.	408	409	410	417	418	419	420	421	422	423
desb.	0	0	1	0	1	0	2	1	0	0

I

or.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
desb.	0	1	1	0	1	1	0	0	1	1

Z

or.	384	385	386	387	388	389	390	391	392
desb.	1	1	4	0	1	0	0	0	0

A ez diren letretan orrialdeen %41ean bakarrik agertzen da desbideratzeren bat, eta hauek orrialdeko bat baino ez dira izan ohi, Z-ko 4ko erpina zeharo isolatua dago-
elarik. A-n, ostera, desbideratzeak %80an agertzen dira, eta hauetatik %61a batetik
gorakoa da orrialdeko.

Desbideratzeen gutxitzean, bestalde, mailakatze bat dago A-n zehar: A1 eta A2-n
desbideratzeak orrialdeen %100ean agertzen dira, eta batekoak %10an; A3 eta A4-n
desbideratzeak %80an eta batekoak %25ean; A5 eta A6-n desbideratzeak %60an eta
batekoak %30ean. Mailakatze hau AZ-rekin batera zeharo eteten da: B-tik aurrera
desbideratzeen kopurua eta banaketa egonkorra da.

5.3. Desbideratzeen kokagunea

Urruntasun-hurbiltasun parametroen aldetik, HH-ko desbideratzeak maizenik
AB hurrenkeraz atetikoak dira, hots, lehenengo bi letrak gutxienez errespetatzen
dituzte;⁵⁷ hauen artean usukoenak (corpusaren %77an), berriz, 1-2 lerrokadako
jauzia⁵⁸ soilik eskatzen dute;⁵⁹ ikus ditzagun adibide batzuk:

2-3-1 Abatanar. Abatanado. Abatanador.

2-1-2 Azada. Azacan. Azada.

1-4-2-3 Bandolero. Banduxo. Bandullo. Bandurria.

3-4ko gutxi batzuk ere (11 orotara, %6'8) badira; cf., adibidez:

2-3-4-1 Alabega. Alabeo. Alabesa. Alabeces.

2-5-6-1-3-4 Alianza. Aliarse. Aliado. Aliaga. Aliara. Aliaria.

4-1-2-3-5 Importunidad. Importunación. Importunamente. Importunar.
Importuno.

Handixeago diren bakan batzuetan (10etan), familia bereko hitzen arteko ordena-
nahasketa bakarrik gertatu da:

3-3-5-1-4-4-2 Abatir. Abatir. Abatido. Abatidor. Abatirse. Abatirse. Aba-
timiento.

3-3-5-2-4-6-1 Afirmar. Afirmar. Afirmado. Afirmador. Afirmarse. Afir-
mativamente. Afirmación.

1-2-3-4-6-5-6-4-6-6-1 Ajustadamente. Ajustador. Ajustamiento. Ajustar.
Ajustado. Ajustarse. Ajustado. Ajustar. Ajustado. Ajustado.
Ajustadamente, en este sentido.

Orain arteko guztiek hitzaren aurkikuntza oso nekez oztopa lezaketela nabaria da.
Are gutxiago, jakina, dagokien lekuan deia daukatenek: *abertura* eta *abiertamente abri-*
pean azaltzen dira, baina zeinek bere lekutik hara eramaten gaituzten "Abertura.

(57) Zeharo normala, hasierako bi letren segidari Larramendik bai hiztegian, baita batez ere lan egi-
terakoan ematen zion garrantzia ezaguturik.

(58) Ataltxo honetan lerrokadetara itzuli naiz, hiztegi honetan irakurlearen begiek erabil dezaketen
neurri bakarra izanik, noraino luzatu behar diren agertarazteko asmoz.

(59) Espero zitekeen bezala, A letrari, hots, aztertu corpusaren %60ari, 1-2tik gorako desbidera-
tzeen %89'4 dagokio.

Vease abrir” eta “Abierta, to, vease *abrir*” sarrerak dituzte. Beste horrenbeste esan dai-teke *hazer*-i buruz: hurrenkera “Hacendoso. Hazer. Hecho. Hacha” da,⁶⁰ alfabetatze hertsian okerra, baina esan beharrik ez dago edozeinek aurkitzeko moduan dagoela.

Nekosoagoa dirudi, ordea, *aguardiente*, *aguamanos* eta *aguapie* aurkitzeak, *agua* peko “Agua llovediza”, “Agua bendita”, etab. azpisarrerren artean nahasita baitaude, eta zein bere familiarik aldentuta: cf. “Aguage. Aguamanil. Aguanoso” hurrenkera *aguamanos*-erako eta “Aguardar. Aguardentero. Aguatocha” *aguardiente*-rako.

Badira, azkenik, erraz idoro ezin daitezkeen hitzak, benetako auzokoetatik urruti xamar daudelako: *abjurar* eta *abjuración*-ek 13ko jautzia egin dute; *alcanfor* eta *alcanforado*-k 12koa; *zainas*-ek 8koa; *almuerzo*-k 6koa; *abadesa* eta *abadía*-k 5koa, dago-kien orrialdetik aurrera igaroaz. Zailena —gaurko begiez begiratuta bederen— *asilo* da: bere lekutik 133 sarrerako jautzia egin du, <asylo>-ren tokiraino.

5.4. Desbideratzeen arrazoiak

A letrako hasiera alde batera utzita, *HH*-an garai horretako hiztegi batean espero baino desbideratze gutxiago dago, ingeles tradizioarekin erkatuta. Dударik gabe, hau ez da Larramendiren lorpena, erdizka baizik: eredutzat bereziki zuzen alfabetatutako hiztegia aukeratu zuen heinean, alegia. Alfabetatzearen aldetik, hortaz, gaingiroki esan liteke ondo dagoena *DAut*-i zor zaiola, eta gaizki dagoena, berriz, Larramendiri. Atal honetan erakutsi nahiko nuke gauzak ez direla zeharo horrela, ondoko puntu hauek frogatuaz: 1) *HH*-an dauden desbideratze gehienek azalpen trinkoa daukatela, hau da, ez direla akatsak, hiztegiko hurrenkerari buruzko ikuskera ezberdin baten ondorenak baizik; 2) batzuk *DAut*-ek eragindakoa direla; eta 3) A-n eta gainerako letretan dauden desbideratze motak berak direla: hots, maiztasuna dela aldatzen den gauza bakarra.

5.4.1. Hitz-familiak

Gorago ikusi bezala, hitzak ez abeze hertsiazen arabera, familiaka baizik antolatzeari, *DAut*-en egileek gogoan hartu zuten hiztegia ordenatzeko beste modua izan zen. Familiakako hiztegiak, orain ere badirelarik,⁶¹ orduan maizago aurkitzen ziren, hitzen jatorriaz —adituak bederen— orain baino kezkatuago zeudelako, besteak beste. Euskararekin ere eredu hau saiatu dutenak ez dira gutxi: Pouvreau, van Eys, Maurice Harriet, Lhande...

HH-aren desbideratzeetan honek izugarritzko pisua dauka, eta badirudi A letraren hasiera osatzerakoan ia-ia alfabeto hurrenkeraren bestekoa izan zela Larramendiren buruan. B-tik aurrera *DAut*-en ereduari gehiago atxikita, oro har *HH* alfabetikoki antolatutako hiztegia dela esan beharra badugu ere, hasierako zalantza horren arrasto zenbait hiztegi guztian zehar antzematen dira.

Hala eta guztiz ere, hitzen etorkiaren arabera gutxi-asko antolatutako hiztegie-tan, oinarritzko hitzak —akademikoek hitzaurrean “primitivas” deitutakoak— izaten

(60) Askok erraztuaz, tartean 6 orrialde pasa trinkoen paradigmaz osatuta baitaude, besteak beste.

(61) Espainian bederen hain ospetsu eta erabilia den Moliner-en *Diccionario de uso del español* (Madrid, 1988) lekuko.

dira familiaren buru, eta haien azpian kokatzen dira, hiztegiak hautatutako ordenan,⁶² gainerako guztiak. Ez dugu honelakorik itxaron behar *HH*-an: hitzak familia-ka batzeko joera indartsuenik dabilenean ere, gehienera jota familiako partaideak elkarren segidan ezartzen dira (tarteko “atzeak” aurreratu zein atzeratuz), famili-buru argirik gabe. Adibidez, *ABSOL*- hasieradun sei hitzak bi familiatan banatu dira, lehen lekua batean aditzak (nahiz *absolución* izan bere lekuan dagoen bakarra) eta bestean adberbioak (alfabeto hurrenkeraren arabera lehena, hain zuzen) harturik; hurrenkera honela geratu da: “Absolver. Absolución. Absolvederas. Absolutamente. Absoluto. Absolutas” (5-1-4-2-3-3).

Hiztegi zaharretan honelako gertakariak ez dira ezohikoak, alegia, alfabeto hurrenkeraren araberako antolaketa nagusi baten azpian halako edo holako maiztasunaz eratorriak oinarritzko formaren ondoren agertzea: beste horrenbeste kausitzen dugu Nebrixa (1495), Las Casas (1570), Cawdrey (1604), Covarrubias (1611) edo Frantziako Akademiaren hiztegiaren (1694), adibidez (cf. von Gemmingen 1992: 25; Steiner 1970: 103). Cawdrey-ri gertatu bezalaxe (Osselton 1989: 167), Larramendik bi letra tipo baino ez zituenez, ez zeukan azpisarrerak markatzeko baliabiderik eta, halaz ere, alfabeto hurrenkerari uko egiten dio hitz-familiak bilduta ematearen alde.

Nolanahi ere den, familia bereko segida horien barruan, badira gramatika kategoriatzuk beste hitzak —dagokien lekutik atereaz, den hau familia barrukoa zein kanpokoa— bere ondora erakartzeko gaitasuna dutenak.

5.4.1.1. *Aditz multzo bedatuak*

DAut-en aditzak osatzen duen multzoa *HH*-an indartzen da, beste arrazoi batzuen artean hiztegi honetan —*DAut*-en ez bezala— adierak ere beste kategoriatzuk erakarle izan daitezkeelako, guztiz partizipioaren (ik. beheago § 5.4.7.1). Familiakako antolakuntzan oro har, gertakari honek garrantzi handia izango du, desbideratzeak biderkatuaz, ondoko abideetan antzeman daitekeen bezala:

Afinar. Afinador. Afinar. Afinador.
Azogue. Azogar. Azogue. Azogarse. Azogue.

Aditz multzo handi horiek ia edozertariko gauzak erakar ditzakete beren barnera, eta batzuetan segida luze korapilotsuak sortu; ikus dezagun hauetako bat:

Abrir. Abrirle a uno la cabeza. En un abrir y cerrar de ojos. Abierta puerta. Abierta la cabeza. Abiertamente. Hombre abierto. Abierto, resto en el juego. Abertura. Abrirse. Abrirse el erizo. Abierto así. La castaña. Abrirse, por henderse. Abertura así.

Honetaz dena dela, aditzak berez eratorri mota zenbait bere ondora erakartzeko joera dauka, eta hauxe da, hain zuzen, *HH*-an gailentzen den desbideratze sail opa-roena. Erakarberenak, zalantzarik gabe, *-dor* atzizkidun hitzak dira, normalean

(62) Aukera bat baino gehiago dago: berriro alfabeto hurrenkerara bihurtzea, edo atzizki batzuei besteen gaineko lehentasuna ematea, adibidez.

“Infinitibo. (Partizipio). *-dor*” segidak osatuaz; alegia, oro har, Larramendik *DAut*-en oinarritzko sistema gordetzen du, aditzaren ondo-ondoko lekua partizipiorako utziaz. Salbuespenak bi baino ez dira (ik. *infra* “Agarrar” eta “Alcanzar”). Honelakoek, aztertu 169 desbideratzeetatik 41 (%24’3) azaltzen dituzte, eta gehienak bakunak dira:

Abatanar. Abatanado. Abatanador // Abonar. Abonado. Abonador // Abultar. Abultado. Abultador. Abultar // Afamar. Afamador // Afeiar. Afeado. Afeador. Afeiar // Afeitador // Afianzar. Afianzado. Afianzador // Afilar. Afilado. Afilador // Afinar. Afinado. Afinador. Afinar. Afinador // Afrentar. Afrentado. Afrentador // Agarrar. Agarrador. La acción de agarrar. Agarrado. Agarrarse // Agarrochar. Agarrochador // Agasajar. Agasajado. Agasajador // Agraviar. Agraviado. Agraviador // Aguadañar. Agua[da]ñador // Aguijar. Aguijado. Aguijador // Agujerar. Agujerado. Agujerador // Aguzar. Aguzado. Aguzador // Ahuchar. Ahuchado. Ahuchador // Alagar. Alagador // Alargar. Alargador. Alargar // Alcanzar. Alcanzador. Alcanzado // Almohazar. Almohazado. Almohazador // Atisbar. Atisbado. Atisbador // Atormentar. Atormentado. Atormentador // Atosigar. Atosigador. Atosigar. Atosigador // Atronar. Atronado. Atronador // Aumentar. Aumentado. Aumentador.

Bestetan, ordea, *-dor* atzizkidunarekin batean, aditz multzo berri hauetan bestelako eratorriak ere ager daitezke, batez ere *-miento* atzizkidunak (6), baina baita *-dura* (3) eta *-ción* (1) ere. Ohartu denak berez aditzaren eratorriak direla, oinarriari “egilea” eta “ekintza” adiera eransten diotenak. Honelakoak *-dor* atzizkidunen atzean agertu ohi dira, aipatu “Infinitibo. (Partizipio). *-dor*” segida bere hartan utziaz, baita aditzak adiera bat baino gehiago duenean ere:

Abatir. Abatido. Abatidor. Abatirse. Abatirse. Abatimiento.
 Abollar. Abollado. Abollador. Abolladura.
 Abrasar. Abrasado. Abrasador. Abrasarse. Abrasamiento.
 Abreviar. Abreviado. Abreviador. Abreviatura. Abreviatura. Abrevia. En fin, por abreviar.
 Aferrar. Aferrado. Aferrador. Aferrar. Aferrado. Aferramiento.
 Afirmar. Afirmador. Afirmarse. Afirmativamente. Afirmación.
 Ahogadero. Ahogar. Ahogado. Ahogador. Ahogarse. Ahogamiento. Ahogo.
 Alisar. Alisado. Alisador. Alisar. Alisaduras.
 Allanar. Allanado. Allanar. Allanador. Allanar. Allanarse. Allanamiento.
 Allegar. Allegador. Allegamiento. Allegar.

Ildo beretik, *-dor* ez egon arren, eratorriak aditzaren atzean ezarriak ager daitezke eta, behin izan ezik (cf. “Incomodar”), honek ez du apurtzen infinitiboa eta partizipioaren arteko oinarritzko lotura. Sail honetan atzizkiei buruz lehen antzemandako joerak indartzen dira (*-miento* [4], *-ción* [5], *-dura* [4]), baina baita berri zenbait ere agertzen (*-mente* [6], *-dad* [1], *-derol-a* [2], *-cia* [1], *-era* [1]):

Abjurar. Abjuración // Abotonar. Abotonado. Abotonadura. Abotonar. Abotonado // Abrevar. Abrevado. Abrevadero // Abrir. Abierta. Abierta. Abiertamente. Abierto. Abierto. Abertura. Abrirse. Abrirse. Abierto. Abrirse. Abertura // Absolver. Absolución. Absolvederas⁶³ // Advertir. Advertidamente. Advertencia // Achar. Aechaduras // Afectar. Afectado. Afectadamente // Afeminarse. Afeminadamente // Afligir. Aflicción // Agradar. Agradablemente // Agregar. Agregado. Agregado. Agregación // Aherrojar. Aherrojado. Aherrojamiento // Ahorrar. Ahorrado. Ahorramiento. Ahorrar. Ahorrado // Ajustar. Ajustadamente, en este sentido // Aterrar, echar por tierra. Aterramiento. Aterrar // Atildar. Atildadura // Atribuir. Atribuído. Atribución // Azomar. Azomado. Azomamiento // Incomodar. Incomodidad. Incomodado.

Azkenik, aditza bere ondora izen soila ere erakartzeko gai da; aurrean aipatu ditugunetatik berezia da erabat, izena orain "atzetik" datorrelako, aditzetik banantzen zuten sarrerei zein azpisarrerei aurrea hartuaz:

Abonar. Abonado. Abono. Abonado... Abonar. Abono. Abono. Abonar.
Afeitar. Afeites. Afeitar.
Aforar. Aforo. Aforismo.
Aforrar. Aforro. Estar bien aforrado.
Almorzar. Almuerzo. Almotazen.
Atrasar. Atraso. Atrasmano.

Behin, joera guztiok batera ikus daitezke: "Abrazar. Abrazado. Abrazador. Abrazo. Abrazaderas". Orotara, aditz multzoaren handitze honen bidez 85 desbideratze (%50'3) azaldu ditugu.

Erabilitako corpus murritzean harrapatu dugun "Incomodar"-en segida, baliteke gutxiegi izatea joera hau A-tik kanpo ere agertzen dela zeharo frogatuzat uzteko. Haatik, beste zunda batzuk botatzea aski izan da joerak, oso moteldua bada ere, badi-rauela eta, are gehiago, gaineratu behar dugun *-ble* berriaren adibide bat izan ezik, atzizki berberen ganean (*-dor*, *-ción*, *-dura*, *-mente*) indarrean dagoela ohartzeko:

Dedicar. Dedicado. Dedicación // Destruir. Destruidor. Destruído // Disponer. Dispuesto así. Disponedor así. Disposición así. Disponer. Disponer. Disponedor así. Disposición así // Fanfarronear. Fanfarronamente // Navegar. Navegable. Navegación. Navegante. Navegado // Vaciar. Vaciar. Vaciar. Vaciar.

Joera hau A-n oso indartsua da: *-dor*-en kasuan, aztertutako orrialdeetan alfabetikoki oker/zuzen proportzioa 41/19koa da; aitzitik, D letra osoan, adibidez, 2/65koa. Espero bezala, A-ren bilakaerak gainerako letretan gertatuko dena iragartzen du:

A1: 8/2 (Abogador. Abridor).
A2: 18/1 (Aguador).
A3: 4/2 (Ajustador. Alborotador).
A4: 5/1 (Aliñador).

(63) Alabaina, lekua izenarena da, goraxeago azpimarratu dudana bezala.

A5: 4/8 (Assador. Assaltador. Assegurador. Assentador. Asserrador. Assolador. Atacador. Atador).

A6: 2/5 (Aventador. Averiguador. Ayudador. Ayunador. Azufrador).⁶⁴

5.4.1.2. Izena

Familiako beste gune bat izena izan daiteke, bere ondora beste partaide batzuk erakarriaz. Hau ez da beti era batera gertatzen; sarrienik, dagokion lekutik atera eta gainerakoei aurrea hartu die; bestetan, berriz, lekua berea da, eta erakarri dituen familiakideen buru-buruan agertzen da (izarra daramaten adibideak). Halaz ere, erakartzeak ez du nahitaez ondora ekartzea esan nahi: gutxi batzuetan (“&” zeinua daramatenak) aski izan da aurrean geratzearekin:

*Abad. Abadesa. Abadia. Abada.

Abasto. Abastar. Abastado.

Abismo. Abismar. Abismarse. Abismado.

*Abstracción. Abstracción. Abstrahido. Abstrahido. Abstrahido. Abstrahido. Abstrahido. Abstrahido. Abstrahido. Abstrahido.

Afición. Aficionado. Aficionarse. Aficionarse. Aficionado.

Afinidad. Afines así. Afinidad.

Agosto. Agostizo.

&Alaga. Alagartado. Alagar. Alagado. Alagar más. Alagado más. Alagador.

Alago. Alagüeño.

&Alamin. Alameda. Alamo.

Alcalde. Alcaldia. Alcalde.

Alcornoque. Alcornocal. Alcornoqueño. Alianza. Aliarse. Aliaga.

Almagre. Almagrar.

Almarjo. Almarjal.

*Artificio. Artificiosamente. Articioso. Artificio.

Avaricia. Avaramente. Avariento.

Azogue. Azogar. Azogue. Azogarse. Azogue.

Azufre. Azufrar.

Barquillo. Barquillero.

Importunidad. Importunación. Importunamente. Importunar. Importuno.

Agerian dago aditzaren aldean izena oso erakarmen murrizteko kategoria dela; halaz ere, corpuseko 20 desbideratze (%11'8) azaltzen ditu. Erakartzen dituen hitzak, bestalde, hiru taldetan bana daitezke: eratorriak (-mente [3], -al [2], -ía [2], -esa [1], -ero [1]), -ción [1], -eda [1]), aditza edo aditz multzoa (8) eta adjektiboak edo partizipio-adjektiboak (7).

Esan liteke, gainera, izenak aditza ia berdintzen duela erakargarritasunean, zeren eta familiako hitz guztiak edo ia guztiak batzeko indarra baitu batzuetan (cf. “Abad”

(64) Aditzetan agertzen ez diren adierak kontuan hartuko bagenitu (cf. “Aliñador, en lo antiguo era el que tenía a su cargo algunos bienes” vs “Aliñar, componer”), aldeak handixeago izango lirareteke oraindik.

edo "Importunidad"), baita lehentasuna erdietsi ez duenean ere (gogoratu *absolución*-en kasua); areago, birritan partizipioa bere egin du ("Abstraher" eta "Afición"). Ez da harrigarria, nolana ere, familiakako ordenatzeetan izenak izan ohi duen nagusitasuna kontuan izanik.

Dagoeneko baditugu beste letretako bi ale; hona hemen beste zenbait:

Falda. Faldamento. Falda.
 Farandula. Farandulero. Farandula.
 Quexido. Quexicoso. Quexoso.
 Tallo. Talludo. Tallo. Talludo.

5.4.1.3. *Adjektiboa eta partizipioa*

Adjektiboak, oso neurri laburrean bada ere (orotara 4, % 2'4), badu hitzen bat edo beste bere egiteko gaitasuna, batez ere *-mente* atzizkidunak, baina baita inoiz izen abstraktu eratorria ere. A letraren hasieran bederen, erakarrirako hitza adjektiboaren eta "hacerse..." erako azpisarreraren artean ager daiteke:

Afable. Afablemente. Hazerse afable.
 Agraciado. Agraciadamente.
 Agrio. Agrura. Hazerse agrio.

Talde honetan sartzen da, baita bete-betean sartu ere, Larramendiren eredia ezagutuko ez bagenu isilean igaroko litzatekeen honako hau, non partizipio aktiboa alfabetozko lekura itzuli duen, *-mente* atzizkidunak erakarrira: "IGNORANCIA. IGNORANTEMENTE... IGNORAR. IGNORANTE. IGNORADO" > "Ignorancia. Ignorante. Ignorantemente. Ignorar. Ignorado".

Aditzak erakarrirakoen sailean aipatu ditugun kasu bakan batzuk hemen ere koka genitzakeen: "Abrir. Abrirle. En un abrir. Abierta. Abierta. Abiertamente..." eta "Afectar. Afectado. Afectadamente".

Joera mantentzen da; hona hemen beste letretako adibide zenbait:

Defectuoso. Defectuosamente.
 Definitivo. Definitivamente.
 Magestuoso. Magestuosamente.

5.4.2. *Grafi aldaketak*

Larramendik hainbatetan *DAut*-ekoez bestelako hautapenak egin ditu grafian. Honek, oraingo arloari dagokionez, lau ondorio izan ditu: (a) sarrera batzuk lekuz mugitu dira, hautapen berriaren arabera; (b) mugitzerakoan, ez dira beti ongi tarte-katu; (c) grafia aldatu arren, ez dira lekuz mugitu; eta (d) lekuz mugitu arren, lehengo grafia gorde dute. (b), (c) eta (d) puntuek, agerian denez, alfabeto hurrenkeraren kontrako hutsak sorrarazi dituzte. Grafiak gure corpusean orotara 16 desbideratze (%9'5) azaltzen ditu. Ikus ditzagun, kopuru honetan izan duten garrantziaren arabera ordenatuta:

5.4.2.1. *Grafia berria, leku zaharra*

Hauxe da maizenik antzematen dugun desbideratze mota:

Absorto. Absorbente. Abstenerse / ABSORVENTE.
 Alabega. Alabeo. Alabesa. Alabeces / ALABEZ (sing.).
 Alcamonias. Alcanfor. Alcanforado. Alcance / ALCAMPHOR, etab.
 Alfaneque. Alfanjazo. Alfange / ALFANJE.
 Alhargama. Alhacena. Alhelga / ALHAZENA.
 Alhurreca. Alhucema. Alianza / ALHUZEMA.
 Alixares. Alizaze. Alizar / ALIZACE.
 Astuto. Asilo / ASYLO.
 Atravesano. Atravessar. Atravesia / ATRAVESAR.
 Bandolero. Banduxo. Bandullo. Bandurria / BANDUJO.
 Hacendoso. Hazer. Hacha / HACER.
 Hecatombe. Hechizeria. Hechizero. Hechizar. Hechizo / HECHICERIA,
 HECHICERO.
 Zaherido. Zainas. Zahon / ZAHINAS.

Corpusetik kanpo honako adibide hauek erants ditzaket:

Cachupin. Cazicazgo. Cacique / CACICAZGO.
 Cabalgar. Cabaluste. Cabalina / CABALHUSTE.

5.4.2.2. *Gaizki tartekatua*

Corpusean agerraldi bakarra baino ez dut aurkitu, eta ohartu behar da *HH*-an “assassino” sarrera ere badela:

Asadura. Asasino. Asarabacara < ASSASINO.

Ikus, ordea, handik kanpo ditugun beste hauek:

Falaris. Falarica < PHALARIS.
 Febeo. Febo. Feamiento < PHEBEO, PHEBO.
 Gabela. Gabilla, así se debe escribir, es voz Bascongada, véase *gavilla*.
 Gabia, véase *gavia*. Gabinete < GAVIA... GAVILLA.

5.4.2.3. *Grafia zaharra, leku berria*

Honek ez du ordezkariarik aztertutako corpusean, baina behin bederen handik kanpo aurkitu ahal izan dut: “Paguro, Payla, Paylon, Pairar”.

5.4.3. *DAut-en oharkabeko desbideratzeak*

Eskuz ordenatzea lan gaitza da. Akademikoek ere badituzte oharkabean egindako desbideratze batzuk, *HH*-an islapen zuzena izan dutenak. Orotara, *DAut*-ek azaltzen dituen desbideratzeak 13 dira (%7'7):

Alboroque. Alboronia.
 Alhucema. Alianza. Aliarse. Aliaga. Aliara. Aliaria.
 Atafea. Atafarra.
 Haldear. Haldada.
 Imbecilidad. Imbecil.
 Incensario. Incentivo. Incensurable.
 Zaferia. Zafariche.
 Zamborotudo. Zambomba. Zambombo.
 Zancajera. Zancajear.
 Zángano. Zanganear.
 Zarandajas. Zarandar. Zarandado. Zarandador.
 Zoco. Zocoba. Zoclo. Zodiaco.

Ohartu hiztegiko azken letren aldera *DAut*-en dagoen maiztasun igoera, hemen ezin azter dezakeguna: hala eta guztiz ere, guretzat oso garrantzitsua da, zeren eta *Z* letran antzeman dugun desbideratze gorakada ttikia ereduari egotzi behar baitiogu zeharo.

Corpusetik kanpo ere ez da ezohikoa, eta batzuetan bereziki korapilotsua:

Naranja. Naranjal. Naranjada. Naranjado. Naranjero. Naranjazo. Naranjero.
 Oenathe. Oenas.
 Padrina. Padrino. Padrinazgo. Padrón.
 Raceles. Racimado. Rachitis. Racimo.
 Sabático. Sabatarios. Sabatismo < SABATICO. SABATINA. SABATARIOS. SABATI-
 NO. SABATISMO.
 Xabonar. Xabonado. Xabonadura.
 Xaguadero. Xagua.
 Yambo. Yámbico.

5.4.4. *DAut*-eko azpisarrerak

DAut-ek sarrera barruan eskaintzen dituen esapideen artean elkartu zenbait agertzen dira. Hango ordena mantentzeak, beraz, desbideratze —inoiz larri— batzuk sortarazten ditu *HH*-an. Aztertu corpusean 4 desbideratze (%2'4) azaltzen ditu honek: “*Agua. Aguardiente. Agua. Aguamano. Agua. Aguapie. Aguas*” eta “*Zambullida. Zampar. Zampalimosnas. Zampatortas*” segidetakoak.

Eta corpusetik kanpo: “*Majar. Majagranzas*” eta “*Rajar... Rajabroqueles*”.

5.4.5. *HH*-aren buru bakuntzeak

Larramendik batzuetan *DAut*-ek sarrera-buruan eman aukeren (hots, hitz beraren aldaeren) artean bat bakarrik hautatu du; hautatutakoa, sarrera lehengo tokian mantendu baldin badu, oker gera daiteke, corpusean birritan (%1'2) gertatzen zaigun bezala:

Alkali. Alkakenji < ALKANQUEGI, o ALKAQUENGI, o ALKAKENGI.
 Almagre. Almagrar < ALMAGRA o ALMAGRE.

5.4.6. *HH-aren sarrera bakuntzeak*

Larramendik sarreren kopurua txikitzeko daukan sistema bat, familia eta esanahi bereko bi hitz —beraz, euskaraz ordezkari berberak lituzketenak— bat egitea da. Inoiz, sarrera bakuntze hau okerreko lekuan egin du. Eskura daukagun adibide bakarra corpusetik kanpokoa da: “Guijarro. Guijarreño, guijeño” < “GUIJARREÑO. GUIJARRILLO. GUIJARRO. GUIJEÑO”.

5.4.7. *Aditz multzoaren aldaketak*

Aurreko atal batean (§ 5.1) ikusi dugu nolako aditz multzoak gertatzen diren *DAut*-en, eta ezarrita utzi dugu Larramendi *DAut*-en berezitasun honi ere orokorrean atxiki zitzaioela. Gure corpusean, halere, badira ereduaren ordena —*DAut*-ek estuki jarraitzen duen “Infinitiboan, *-se* aditza, part. aktiboa, part. pasiboa” ordena— hausten duten zenbait adibide. Merezi du, nik uste, aztertutako corpusean nolako eragina daukaten neurtzea. Ezer baino lehen, esan dezadan corpusean 332 aditz multzo daudela, hots, infinitiboaz gaineko beste osagarriren bat daukatenak; eta gogoratu behar dugu, bestalde, *HH*-ko multzoek eratorri zenbait (guztiz *-dor* atzizkidunak) ere onartzen dituztela. Multzo gehienak (256, %77’1) “normal” dira, hau da, (a) goian aipatu oinarriko ordena gordetzen dute, nahiz eta (b) adiera ezberdinak edota (c) hitz eratorriak bere baitan batu.⁶⁵ Adibidez:

- (a) Ahitar. Ahitarse. Ahitado.
Impetrar. Impetrante. Impetrado.
- (b) Agavillar. Agavillar. Agavillarse. Agavillado.
- (c) Afectar. Afectado. Afectadamente.
Agarrochar. Agarrochar. Agarrochado. Agarrochador.

Eredu teorikoarekiko atxikimendua, inon baino hobeto antzematen da *DAut*-ek arauz kontra, diren arrazoiak direla, dakartzan hitzetan —hala nola “ABSTENERSE... ABSTINENCIA. ABSTINENTE” > “Abstenerse. Abstinente. Abstinencia”—, edota itxuraldatu diren hitzetan: adibidean, *abocarse* bihurtu den *DAut*-eko lehen adiera, *HH*-an azken agertzen da:

ABOCAR. Convocar o juntarse de concierto... ABOCAR. (...) asir alguna cosa con la boca. ABOCAR LA ARTILLERIA > Abocar, assir con la boca. Abocar la causa. Abocar la artillería. Abocarse, juntarse de concierto.

Itxurazko desbideratze zenbaitek, berriz, *DAut*-en dute oinarri, hots, hango ordenari zor zaizkio:

AFRONTARSE. AFRONTAR > Afrontarse. Afrontar.
ALINDADO. ALINDAR > Alindado. Alindar.

(65) Zaku berean sartu ditut, jakina, *DAut*-en ez zegoen osagarri berriren bat daukatenak.

ALISTADO. ALISTAR > Alistado. Alistar.
 ATREGUADO. ATREGUAR > Atreguado. Atreguar.
 ATREVERSE... ATREVIDAMENTE... ATREVIDO > Atreverse. Atrevidamente.
 Atrevido.

Gainerantzeko 71en⁶⁶ berri ematen saiatuko naiz, bada, ondoko ataletan.

5.4.7.1. Adierakako antolakuntza

Bereizkuntza grafikorik ez izanik, batetik, eta hiztegia elebiduna delako *DAut*-ek egindako partizipioen bakuntzearekin arazoak izanik, bestetik, Larramendik beste bide bat hautatu du, batzuetan bederen, adiera bereko gauzak batzeko. Hautapen hau zeharo lotuta dago, jakina, hitz-familiakako antolakuntzak hiztegian daukan garrantziarekin. Izan ere, hainbatetan aditz multzoa azpimultzo bitan edo gehiagotan zatikatuta dakusgu, eta bakoitzak bere infinitiboa, bere partizipioa, bere esapideak eta are bere eratorriak izan ditzake, ondoko era honetara, errazenetatik hasita:

- [1-2] [1] Avanzar, adelantar. Avanzado. Avanzar, acometer.
- [1-2] [1-2] Aspar. Aspado. Aspar, crucificar en el aspa. Aspado así.
- [1-2] [1-2][1-2] Ahumar. Ahumado. Ahumar, curar algo al humo. Ahumado así. Ahumar, perfumar. Ahumado así.
- [2-3-1] [2-3] Abotonar. Abotonado. Abotonadura. Abotonar, echar los árboles y vides el botón. Abotonado en los árboles y vides.
- [2-3] [2-3-1] Atildar, poner lo escrito en toda su perfección. Atildado así. Atildarse, componerse, asearse. Atildado así. Atildadura, aseo.
- [1-1-3] [1-3] [2] [2] Bañar. Bañar, el mar o el río algún lugar. Bañado. Bañar, cubrir una cosa con otra líquida. Bañado así. Bañarse, por nadar. Bañarse en agua rosada.
- [2-3-1] [2-3-1] Atosigar, dar veneno. Atosigado así. Atosigador así. Atosigar, dar demasiada prisa. Atosigado así. Atosigador así.
- [3-4-1-1-2] [3] [4] Allegar, recoger. Allegado. Allegador. Allegadores. A Padre allegador. Allegamiento. Allegar, en el sentido de llegar. Allegados, parientes.
- [2-4] [3-4] [2-4] [4-1] Ajustar. Ajustado. Ajustarse. Ajustado así. Ajustar cuentas. Ajustado, conforme. Ajustado a la razón. Ajustadamente, en este sentido.

Ustezko adiera ezberdina “más” edota “demasiado” zehaztapenak bereizten duenean, sarritan nolabait azpimultzo berezi bat osatzen dela esan daiteke: hori tartean ez balego bezala, *-dor* atzizkiduna parentesiaren bukaeran agertzen da:

Afrentar. Afrentado. Afrentar más. Afrentar demasiado. Afrentado más (...), demasiado. Afrentador.
 Alagar. Alagado. Alagar más (...), demasiado. Alagado más (...), demasiado. Alagador.

(66) “Alistado”-ren kasua berrartu behar dugu, *DAut*-ek azaltzen duen desbideratzeaz gain bai baitu gehiago.

Alargar, hazer más largo. Alargado. Alargar aún más. Alargado más. Alargador. La acción de alargar. Alargar, o dexar o soltar lo que se tiene assido. Alargado assí. Alargarse.

Allanar. Allanado. Allanar más, (...) demasiado. Allanador. Allanar dificultades. Allanarse, sugetarse. Allanamiento assí.

Orotara 47 adibide ditugu aztertu corpusean;⁶⁷ hauxe da, beraz, gertakaririk eraginkorrena, aditz multzo berezien %66'2 azaltzen baitigu. Areago, itxura ortodoxoa duten beste sarrera batzuetan ere gauza berbera gertatzen da, baina adiera bakar batek —eskuarki azkenak— bakarrik jasotzen du partizipioa (partizipioa azkena ez den adierari dagokionean izarraz markatu dut):

Agavillar assí, *gabillatu, gabillac eguin, zamatu, zamac, sortac eguin, azaaac eguin, azaotú*.

Agavillarse, meterse en tropa y mezclarse con otros para alguna fechoría, *gabillatzea, gabicotzea, gendedia biltzea, biribillatzea, balleratzea*.

Agavillado, *gabillatua, gabicotua, balleratua, &c.*

Aliviar, *arindu, arinéguin, astuna quendú*.

Aliviar, dar descanso, *unalaitu, nequeac arindu, gozatu, atsedén ecarri, eman*.

Aliviado, *unalaitua, arindua, gozatua, atsedendua*.

Asemejar, *irudierazo, cerbaiten irudira, anzora eguin*.

Asemejarse, *irudin, irudia, anza, anzoa izan*.

Asemejado, *dirudiena, irudia, irudina, anza duená*.

Assistir, estar presente, *beraurquitu, beraurquetu*.

Assistir, socorrer, *lagundu*.

Assistido, *lagundua*.

Atestar, testificar, *daquirasi, lecucoera eman*.

Atestar, henchir y llenar, *bete aguitz*.

Atestado assí, *aguitz betea*.

Atolondrar, *burua joaz cordebaguetu*.

Atolondrarse, *sor eta gor guelditzea*.

Atolondrado, *sortua ta gortua*.

Atracar, echar harpeos un navío a otro (...) *atraca, atracatu...*

Atracarse las naves, arrimarse, *ertzatú, ertzaz ertza jarri*.

Atracado, *erzatúa*.

*Barrer, *erratzatu, escobatu, errataz, escobaz garbitu*.

Barrerse algo de la memoria, *oroitzatic cerbait joatea, erortea, jauzteá*.

Barrido, *erratzatua, escobatua*.

*Hallar, *arquitu, idoro, causitu, ediro, eriden*.

Hallarse, estar, *egon*.

Hallado, *arquitua, &c.*

(67) Ik. *abatir, abiar, abonar, abrir, abultar, advertir, afeaz, afeitaz, aferrar, afianzar, afinar, agarrar, agrandar, abilar, aborrar, abuecar, ajar, alentar, aligerar, alimentar, alisar, alistar, assar, assombrar, atajar, atarugar, aterrar, atravesar, aventar, babosear, baptizar, imponer eta inclinar* ere.

Bestetan, berriz, partizipioan batu dira adiera ezberdinak, *DAut*-en eredura:

Atropellar, (...). *Tropeliatu, aurizquitu*. Lat. Protero, conculco.

Atropellarse, darse demasiada prissa, *tropeliatu, aurizquitu, urduritu*. Lat.

Nimium properare, festinare.

Atropellado, *tropeliatua, aurizquitua, urduritua*. Conculcatus, nimium properans.

Avisar, *avisa, avisatú, mezutú, gaztiga, gaztigatu*. Lat. Nunciare.

Avisar, amonestar, *mezutu, avisatu, adierazo*. Lat. Monere.

Avisado, *avisatua, mezutua, gaztigatua, adierazoa*. Lat. Nunciatus, monitus.

Hermanar, hazer a uno hermano de otro, *anaitu*.

Hermanar, hazer a una hermana de otro, *arreatu*.

Hermanar, hazer a una hermana de otra, *aizpatu, aizatatu*.

Hermanado, *anaitua, arreatua, aizpatua*.

Hermanar, conformar, unir, *eraquidatu, elcartu*.

Hartar, *asé*.

Hartar, hasta fastidiar, *igüitu*.

Harto, part. *asea, igüitua*.

Herir, (...). *Eritu*. Lat. Ferire, percutere.

Herir, haziendo llaga, *zaurtu, zauritu*; lastimando algo, *arrazatu*. Lat. Vulnerare, sauciare.

Herido, *eritua, zaurtua, arrazatua*. Lat. Percussus, vulneratus.

Imprimir, generalmente, representando alguna figura, *ecanzatu*. Lat. Imprimere.

Imprimir, lo mismo que *impressionar*, véase.

Imprimir, de imprenta, *moldizquiratu*. Lat. Typis mandare.

Impresso, *ecanzatua, moldizquiratua*. Lat. Impressus, typis mandatus.

Hau berau gertatzen da, jakina, gatzelaniazko infinitiboaren eta *-se* aditzaren artean dagoen ezberdintasun bakarra, euskaraz bata iragankor eta bestea iragangaitz izatea denean; hona adibide bat:

Atarear, *saillatu*.

Atarearse, *saillatu*, con las terminaciones de el neutro.

Atareado, *saillatua*.

Partizipioaren antzera, inoiz *-dor* atzizkidunak ere bi adiera bat egin ditzake bere baitan:

Aumentar, *gueitu, gueyagotu, berretú*.

Aumentado.

Aumentar en número, *iöritu, iyoritu*.

Aumentado assí.

Aumentador, *gueitzallea, gueyagotzallea, berretzalea, iyoritzallea*.

5.4.7.2. *Partizipioa aditzari itsatsita*

Hauxe da dagoeneko ikuskatuta geneukan bakarra. Goiko atalean zenbatu ditugun 47etatik hainbatetan partizipio bat edo batzuk *-se* aditzaren aurretik gertatzen dira, beren adierako aditzari (den hau infinitiboa zein *-se* aditza) erabat lotuta agertzen direlako, hain zuzen. Ez gara horietaz kezkatuko hemen, adierakako antolakuntzak aski azaltzen dituelako ustean. Badira, halaz ere, adiera bakuna daukaten baina ordena kanonikoa hausten duten aditzak, 10 orotara, eta ohartu *abrasar*, *afirmar* eta *ahogar*-en familietan partizipioak *-dor* eratorria (baina ez gainerakoak) berekin eraman duela:

Abrasar. Abrasado. Abrasador. Abrasarse. Abrasamiento.
 Afirmar, asegurar alguna cosa. Afirmar, diciendo. Afirmado. Afirmador.
 Afirmarse en lo dicho. Afirmativamente. Afirmación.
 Afligir a otro. Afligido. Afligirse. Afligirse, dársele poco o mucho por algún suceso. Aflicción.
 Ahogar. Ahogado. Ahogador. Ahogarse. Fácil de ahogarse. Ahogamiento.
 Ahorcar. Ahorcado. Ahorcarse.
 Alabar. Alabado. Alabarse.
 Albergar. Albergado. Albergarse.
 Atrasar. Atrasado. Atrasado. Atrasarse.
 Avergonzar. Avergonzado. Avergonzarse.
 Avistar. Avistado. Avistarse.

A letratik kanpo ere aski normala da:

Decentar. Decentado. Decentarse. // Declarar. Declarado. Declararse. // Quemar. Quemado. Quemarse. // Sacramentar. Sacramentado. Sacramentarse.

Aditzak bi partizipio izateagatik zeharo berezia den adibide batean, Larramendik aditz multzoan erantsi du *DAut*-ek leku alfabetikoan dakarren irregularra: “AHITAR. AHITARSE. AHITADO. AHITERA. AHITO” > “Ahitar. Ahitarse. Ahitado. Ahito. Ahitera”.

Goian antzeko gertakariak *-nte* adjetiboekin ere ikusiak genituen; gure corpusean agertzen den bakarra, adierakako antolakuntzarekin zaildua dago: “Agravar. Agravado. Agravar más. Agravar demasiado. Agravado más. Agravante. Agravarse”.

5.4.7.3. *Partizipioa aurretik*

Desbideratzerik bitxienak, ziurrenik, partizipioa infinitiboaren aurretik ezartzera daramatenak dira, *DAut*-en eredu eta Larramendiren ohiturarik indartsuenetako bat hausteaz gainera, nahita edo nahi gabe alfabetozko ordena berrezartzen dutelako. Corpusean honelako hiru adibide daude, eta ohartu erdikoan *-dor* atzizkidunarekiko haustura ere gertatzen dela: “Abuhado. Abuharse”, “Afamado. Afamar. Afamador” eta “Aherrumbrado. Aherrumbrarse”.

Oso antzerakotzat jo daiteke adiera barruko ordena bera partizipio aurreratu batek hausten dueneko adibide hau: “Impedir. Impedido. Impedido, de sus miembros. Impedirse, hazerse assí impedido”.

5.4.7.4. -se aditza aurretik

Bitan, -se aditza infinitiboaren aurrean agertzen da; bietan *DAut*-en ez zegoen zerbait erantsi du Larramendik, euskarak-edo behartuta: lehenean, *abrigarse* (vs. *abrigar* “activo”); bigarrenean, *aterir*, euskal etimologia eskaintzeko: “Abrigarse, calentarse. Abrigar, activo. Abrigarse, recogerse o retirarse. Abrigarse así. Abrigado lugar” eta “Aterirse. Aterido. Aterir”.

5.4.7.5. Eratorriak aurretik

Orain artean ikusi izan dugun joerarik indartsuenen kontrako bi adibide topatu dituzte; eratorriak aditz multzo barruan daude, baina partizipioari aurrea harturik: “Alcanzar. Alcanzador. Alcanzado” eta “Incomodar. Incomodidad. Incomodado”.

5.4.8. Larramendiren aldaketak

Gure corpusean behin baino agertzen ez den gertakaria da, baina *HH* osoan baliteke kontuan hartzeko zerbait izatea: “Afuciar. A fuer de. Afuera < AFUER”.

Aldaketa ttiki batek, zalantzarik gabe benetako usadioa hobeki azaltzeko egina, *DAut*-en zegoen ordena apurtu egin du. Honi beste gertakari xume bat erantsi diezaiokegu: “Occisión. Tañer de occisa. Océano” segida berezia, Larramendik erdikoaren gainean zegoen *OCCISO*, SA sarrera ezabatu duelako gertatua.

5.4.9. Sarrera eta azpisarrera berriak

Larramendik *DAut*-i egin zizkion eransketak hurrengo emanaldi bateko gaia izango dira (ik. Urgell 1999a). Alabaina, sarrera berrien eta desbideratzeen artean nahitaez hemen ikutu beharrekoa den loturaren bat badago, zeren eta hortik jo ezean corpuseko bi adibide azalgabe geratuko bailirateke:

Abejera. *Abejita*. Abejero.

Abonar. Abonado. Abono. Abonado. *Abondamiento*. *Abondo*. Abonar.
Abono. Abono. Abonar. Abonado. Abonador.

Abejita, *HH*-an dauden beste txikigarri batzuk bezala, Larramendik erantsitako sarrera da, oharkabean lekuz kanpo (baina familia barruan) tartekatua. Bigarren adibidean, berriz, zeharo gertakari bakana harrapatu dugu: beste familia bateko bi hitz *HH*-an hain trinkoa izan ohi den aditz multzoaren erdian agertzea. “Abondo”-ren ondotik datozen “Abonar”, etabarren adiera(k) Larramendik erantsitakoak direla esanez bakarrik azal daiteke.

Antzeko azalpena izango luke hurrengoak ere, zeren *agilitarse* erantsi ohi dituen “hazerse...” direlakoan ordez baitago, beren ohiko lekuan alegia:

Agil. Agilitarse, es lo mismo que hazerse ágil. Hecho ágil. Hazerse más ágil. Hazerse demasíadamente ágil. Agilidad.

Nolanahi ere den, aipatu loturak eragina dauka familiakako antolakuntzaren bidez azalpena aurkitu duten hainbatetan; hona hemen *DAut*-en agertzen ez direnak:

- DOR: Abatanador. Abatidor. Abollador. Abonador. Abultador. Afamador. Afianzador. Afrentador. Agarrochador. Aguadañador. Aguijador. Agujerador. Ahogador. Alargador. Alisador. Allanador. Almohazador.
- MENTE: Afeminadamente. Agraciadamente. Agradablemente. Fanfarro-namente.
- CION: Abjuración.
- MIENTO: Ahorramiento.

HH-an lekuz kanpo azaltzen diren *-dor* atzizkidunen %47'3 sarrera berriz osatu-ta dago. Inor ez bide da dagoeneko harrituko, dagokien lekuan dauden A-ko *-dor* guztiak *DAut*-en bazeudela esaten badugu.

Halaz ere, erlazioa egon badagoen arren, zilegi bekit markatzea, nire ustez berriak izatea ez dela desbideratzeen arrazoia, haien ikuspegi bat baizik. Lotura goragotik egin beharrean gaude: hitzak ez daude alfabetikoki lekuz kanpo sarrera berriak direlako, familiakako ordena dela eta baizik. Baina bi gertakariak batera gauza bat erakusten digute: A letra beste era batera egiten hasi zela, *DAut*-etik aske-ago zen era batera. Hitzak eranstea eta lekuz aldatzea egia horren bi erakusgarri baino ez dira.

5.4.10. Erratak

Hutsak ez dira, jakina, aurreko kopuruetan inoiz ere sartu, itxuraz bakarrik haus-ten baitute hurrenkera. Corpora ez legoke osoki deskribatuta, ordea, hauen berri eman gabe, bide batez *HH*-aren argitalpen kritiko baten beharra zeinen handia den erakutsi nahiko nukeelarik. Hain corpus txikian, orotara hurrenkera apurtzen duten zortzi errata antzeman ditut:

- Ahuecar. Ahueco [AHUECADO]. Ahuecarse.
- Alcaide. Alcalde [ALCAIDE]. Alcaidesa.
- Alcazar. Alcauz [ALCAZUZ].
- Alhosigo [ALHOCIGO]. Alholba.
- Balaustriado. Baraustriilo [BALAUSTRILLO]. Balax.
- Hemorroidas. Hemorrho [HEMORRHOO]. Henchimiento.
- Zarzaparrillar. Zaraperruna [ZARZAPERRUNA].⁶⁸ Zarzo.
- Zurujano. Zurrillo [ZURULLO]. Zurumbet.

Corpusetik kanpo aztertu zatietan, berriz:

- Fardo. Farcellon [FARELLON]. Farfala.
- Ladrar. Ladrallal [LADRILLAL], ladrillar. Ladrillar.
- Palumbario. Paludo [PALURDO]. Palustre.
- Pampanada. Pamponage [PAMPANAGE]. Pampanilla.
- Quebrantador. Quebrantura [QUEBRANTADURA]. Quebrantahuessos.

(68) Hauxe da hutsen zuzenbidean agertzen den bakarra, baina han ere ez zuzen: "Zarzaperuna".

5.4.11. Azal ezin daitezkeen desbideratzeak

Orain artean aipatu motetan bildu ezin daitezkeen 13 desbideratze dauzkagu:

Abalado. Abalgar. Aballar. *Abalanzarse*. Abalorio. // Abeñuela. Abenuz. // Abernardarse. *Abertero*. *Abertura*. Abernuncio. // Abintestato. *Abjurar*. *Abjuración*. Abión. // Adversidad. Adversario. // Afición. *Afice*. Afición. // Afilar. Afilador. Afiligranado. *Piedra de afilar*. // Alcalde... Alcade pedáneo. *Alcaldía*. Alcalde de Aldea... [=errefr.]. Alcalde... [=etim.] // Alchimia. *Alchimilla*. Alchimia. // Azada. *Azacan*. Azada. Azadon. // Helgadura. *Helioscopio*. Heliaco. Helice. Helioscopio.

Haietatik lautan gertakari bera antzematen da, ordea: hitz bera (*afición*, *alchimia*, *azada*, *helioscopio*) birritan baina bata bestetik ez urrun agertzen da. Ez da oso ezberdina *afilar*-en kasua: bere ondoan joan beharko lukeen esapidea (“*Piedra de afilar*”) aditz multzoko ez den hitz batek atzeratuta dago. Eta *abertero-abertura*-rean, biak bidalketa-deiak baino ez dira. Guztiok azalpen bat iradoki dezakete, besteetarako (eta bestetarako oro har) ere balio izan lezakeena; hona hemen: Demagun eskuzko originalean tokiz kanpoko sarrera haiek ertzetan agertzen zirela, argitaratzerakoan zegoen lekuan eransteko asmoz; eta demagun, halaber, argitaratzaileak oharkabean okerreko lekuan erantsi zituela. Azalpena ez dagoke, inolaz ere, honetatik oso urruti, nahiz proba zuzenketan hiztegiak ez harrapatzea alde bederen harrigarria izan; alde, oster, *Etiam Homero dormiat*, esan ohi den bezala, eta ez dirudi Larramendi honelako “txikikerietan” erneegi ibili zenik, gainera.

6. Ondorioak

Miatutako alderdiak elkarren artean hain ezberdinak izaki, lehenengo hurbilketa honetan era askotako berriak lortu ditugun arren, hasieran emandako arrazoiengatik bereziki interesatzen zait ereduarekiko erkaketak argitzen lagundu dizkigunak azpimarratzea:

1) Badirudi *HH*-an bi hiztegi mota aski ezberdin batzen direla: A letra —hasierakoa, batez ere— eta handik aurrerakoa. Izan ere, hiztegiaren lehenengo orrialdeetan antolakuntzari dagokionez alfabeto hurrenkeraren azpian hitzak familiaka ordenatzeko joera handia somatzen da, eta oro har alfabetoari jarraitzeko ardura gutxi; gainerako letretan, oster, antzeko gertakariak izan arren, oso bakanak dira. Honekin batera, letra berean sarrerak luzeago izateko joera antzeman dugu, baita *DAut*-ek ez dakartzan hainbat atzizkidun (*-dor*-en kasua aztertu dugu, zehazkiago) eransteak ere. Esan gabe doa, *HH*-ari buruzko ondoko ikerketek xeheetasun hau kon-tuan hartu beharko dutela eta, bestalde, ezberdintasunak noraino iristen diren eta zertan dautzan xehekiago aztertzea merezi duela. Nolanahi ere den, badirudi bi idaz-taldi ezberdinen aurrean gaudela: izan ote liteke hau munduko lanak utzi eta Loiolara joateak markatzen duen mugaren ondorio?

2) Larramendik *DAut*-eko hitz guztiak hartu zituela esan bazuen ere, bi hiztegien sarrera kopuruen alderatzeak baieztapen hori gezurtatzeko bide ematen du; areago, lanean zehar erabilitako adibideetan *HH*-an peitzen diren *DAut*-eko eduki batzuk agertu zaizkigu. Alderantziz, Larramendiren eransketa zenbait ere ikusi ahal izan

ditugu. Eransketak zein kenketak izan, argi geratu da bi hiztegietakako nomenklatura erkatu beharra dagoela, Larramendiren hitzak zertan geratzen diren eta, jakiterik balego, zein eratako gauzak erantsi edo kendu zituen jakiteagatik.

3) Aurkezpen grafikoaren aldetik, *HH* oso itxura arkaikokoa da. Larramendik ez zuen ia ezer profitatu *DAut*-ek eskaintzen zion eredu aberats eta zaindutik. Ondorioz, sarreren eta adieren arteko ezberdintasuna erabat ezabatuta dago *HH*-an, baita hauen eta esapide, errefrau zein bestelako oharren artekoa ere: erabiltzaileak, hortaz, kontu handiz ibili behar du, goraxeago edo beheraxeago interesgarria den zerbait ez ote den egongo. Bestalde, argi eta garbi bereizteko moduan dagoen osagai bakarra euskarazkoa da, hiztegiak garrantzi gehiena zeri ematen zion ondotoxo erakutsiaz.

4) Alfabeto hurrenkerari dagokionez, aditz multzoak dira gertakaririk aipagarriena, A letrarekiko gorabeheraz gainera: *DAut*-en jadanik bazegoen joera indartuaz, *HH*-an aditzak ondoren partizipio mota ezberdinak, *-se* aditzak, eratorriak (guztiz aditzetik eratorriak, baina ez bakarrik) eta, labur bilduz, hitz familia osoa biltzeko gaitasuna dauka. Honek —eta, oro har, hitzak familiak antolatzeak— lotura zuzena dauka hiztegiaren euskal edukiarekin: ezen familia bilduta izanik, are errazagoa da familiakide guztiei taiu bereko itzulpena ematea ez eze, euskarak eratorpenaren aldetik eskaintzen dituen posibilitateak osoki zukutzea, jakina. Alde honetatik ulertu behar da, nik uste, *DAut*-ek ez dakarren zenbait eratorri erantsi izana ere: *-dor* atzizkidunen ugaritasuna eusk. *-tzaile* atzizkiak daukan agerpen-maiztasun eta eratorri berriak eskaintzeko erraztasunarekin lotu behar da, ezinbestean.

Bibliografia

- Altuna, P., 1967, "Larramendiren iztegi berria", *Euskera* 12, 139-300.
- Azkue, R.M., [1905-1906], *Diccionario Vasco-Español-Francés*, (2 lib.), Bilbo. Arg. faksimilea, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
- Bandry, G., 1993, "Caracteres de imprenta", *Gran Larousse Universal*, VII, 2336-2338.
- Bray, L., 1986, "Richelet's *Dictionnaire françois* (1680) as a Source of *La porte des sciences* (1682) and le Roux's *Dictionnaire comique* (1718)", in Hartmann (arg.), 13-22.
- , 1989a, "Consultabilité et lisibilité du dictionnaire: aspect formels", in Hausmann et al. (arg.), I, 135-146.
- , 1989b, "La lexicographie française des origines à Littré", in Hausmann et al. (arg.), II, 1788-1818.
- Carrasco, P., 1992, "Los criterios etimológicos en la obra lexicográfica del cordobés Francisco del Rosal", in Lorenzo (arg.), 77-94.
- Casares, J., 1992, *Introducción a la Lexicografía Moderna*, CSIC, Madrid.
- Colon, G. & Soberanas, A.-J., 1986, *Panorama de la Lexicografía catalana. De les glosses medievals a Pompeu Fabra*, Enciclopèdia Catalana, Barcelona.
- Dreyfus, J. & Richaudeau, F., 1990, *Diccionario de la edición y de las artes gráficas*, Pirámide, Madrid.
- Finoli, A. M., 1959 "Dictionnaire de l'Académie Française", in Viscardi et alii, 101-144.
- Fita, F., 1880-1881, "Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi, escritos en 1746 por el P. fray José de María, Carmelita Descalzo", *Revista de Ciencias Históricas*, II-III, 41-91.
- Galeote, M., 1993, "El *Vocabulario en lengua castellana y mexicana* (1555, 1571) de Fray Alonso de Molina", *Antiqua et nova Romania. Estudios lingüísticos y filológicos en honor de José Mondéjar en su sexagesimoquinto aniversario*, Universidad de Granada, I, 273-299.

- Gemmingen, B. von, 1992, "Le *Tesoro de la lengua castellana, o española* de Sebastián de Covarrubias (1611) et la naissance du dictionnaire monolingue en Espagne", in Lorenzo (arg.), 25-33.
- Guerrero Ramos, G., 1990, "Nebrija, autoridad en el *Tesoro de Covarrubias*", *RFE* LXX, 133-141.
- Hartmann, R.R.K. (arg.), 1983, *Lexicography: Principles and Practice*, Academic Press, London-Orlando.
- _____, (arg.), 1986, *The History of Lexicography*, (Studies in the History of the Language Sciences, 40), Benjamins, Amsterdam/Philadelphia.
- Hausmann et al. (arg.), 1989, *Dictionaries. An International Encyclopedia of Lexicography*, Walter de Gruyter, Berlin/New York.
- Hüllen, W., 1989, "In the beginning was the gloss. Remarks on the historical emergence of lexicographical paradigms", in James (arg.), 100-115.
- Humboldt, W., [1817], *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*, Berlin. J. Garateren gaztelaniazko itzulpena, *RIEV* XXIV (1933), 460-487 y XXV (1934), 87-126.
- James, G. (arg.), 1989, *Lexicographers and their works*, University of Exeter.
- Kerejeta, M.J., 1991, "Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegiari", *ASJU* XXV-3, 865-899.
- Lakarra, J.A., 1985a, "Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan", *ASJU* XIX-1, 9-50.
- _____, 1985b, "Berriz Larramendiren segizioko zenbaitez", *ASJU* XIX-2, 439-452.
- _____, 1991, "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi", *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum, Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak XIV, 217-258.
- _____, (arg.), 1992, *Manuel Larramendi. Hirugarren Mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala, etc., Andoain.
- _____, 1993, XVIII. mendeko hiztegi gintzaren etorkiez. Doktorego tesi argitaragabea, EHU-Gasteiz.
- _____, 1994a, "Harrietaren Gramatikako hiztegiak (1741)", *ASJU* XXVIII-1, 1-178.
- _____, 1994b, "Euskal hiztegi gintzaren historiako: II. Gogoetak Urteren hiztegi gintzaz", *ASJU* XXVIII-3, 871-884.
- _____, 1994c, "Euskal hiztegi gintzaren historiako: III. Urteren Gramatikako hiztegia", *ASJU* XXVIII-3, 885-914.
- _____, 1995, "Pouvreauren hiztegiez eta hiztegi gintzaren historiak", *ASJU* XXIX-1, 3-52.
- Lakarra, J. A. & Urgell, B., 1988, "Lécluse-ren Hiztegia. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak (II)", *ASJU* XXII-1, 99-211.
- Landau, S.I., 1989 [1984], *Dictionaries. The Art and Craft of Lexicography*, Cambridge University Press.
- Larramendi, M., 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, Bartholomé Riesgo Y Montero, San Sebastián. *Diccionario Trilingüe (...). Nueva edición, publicada por don Pío de Zuazua*, San Sebastián, 1853. 1. argitalpenaren faksimilea, Txertoa, Donostia, 1984.
- Lázaro Carreter, F., 1981, *Estudios de Lingüística*, Barcelona.
- Lépinette, B., 1992, "La postériorité lexicographique de Nebrija. Les *Vocabularius Nebrissensis* latin-français (1511-1541)", *Historiographia Linguistica* XIX/2-3, 227-260.
- Lorenzo, R. (arg.), 1992, *Actas do XIX Congreso Internacional de Lingüística e Filoloxía Románicas* (Universidade de Santiago de Compostela, 1989), II, A Coruña.
- Martínez de Sousa, J., 1981, *Diccionario de Tipografía y del Libro* (2. arg.), Paraninfo, Madrid.
- Mitxelena, K., [1959], "La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)", *SHLV*, II, 900-912.

- _____, 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro, Madrid.
- _____, [1961], "Euskal itzegigilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan", *SHLV*, I, 361-372.
- _____, 1970, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbo.
- Mokoroa, J.M. "Ibar", 1935, *Genio y Lengua*, Librería de Mocoeroa Hermanos, Tolosa.
- Niederehe, H.-J., 1986, "La lexicologie espagnole jusqu'à Covarrubias", *HEL* 8-1, 1-19.
- Osselton, N.E., 1973, *The Dumb Linguists. A Study of the Earliest English and Dutch Dictionaries*, University Press, Leiden.
- _____, 1983, "The History of english-language Dictionaries", in Hartmann (arg.), 13-21.
- _____, 1989, "Alphabetisation in monolingual English dictionaries to Johnson", in James (arg.), 165-173.
- Picoche, J. & Marchello-Nizia, C., 1989, *Histoire de la langue Française*, Editions Nathan.
- Quemada, B., 1967, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863). Etude sur leur histoire, leurs types et leurs méthodes*, Didier, Paris.
- Santoyo, J.-C., 1995, *La imprenta en Alava* (2 lib.), Fundación Sancho el Sabio, Gasteiz.
- Seco, M., *Estudios de Lexicografía española*, Paraninfo, Madrid.
- Starnes, W.T. & Noyes, G.E., [1946], *The English Dictionary from Cawdrey to Johnson. 1604-1755*. 2. arg. (Studies in the History of the Language Sciences, 57), Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 1990.
- Starnes, W.T., 1954, *Renaissance Dictionaries, English-Latin and Latin-English*, University of Texas Press, Austin.
- Stein, G., 1991, "Introduction", in Starnes & Noyes [1946], vii-xi.
- Steiner, R.J., 1970, *Two Centuries of Spanish and English Bilingual Lexicography, 1590-1806* (*Janua Linguarum*. series practica 108), Mouton, The Hague.
- Tournier, Ch. G. & Lafitte, P., 1953, *Léxique français-basque*, Herria, Bayonne.
- Urgell, B., 1992, "Axular eta Larramendi", in Lakarra (arg.) 1992, 221-246.
- _____, 1995, "Atari gisa", in F.I. Lardizabal, *Testamentu Zarreko Kondaira*, Klasikoak, Donostia.
- _____, 1997, "Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca", *ASJU XXXI*.
- _____, 1998, *ASJU XXXII-2* (aurki agertzeko), "Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (II): sarreraren edukia".
- _____, 1999a, "Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (III): gaztelania", *ASJU XXXIII* (agertzeko).
- _____, 1999b, "El Diccionario de Autoridades de la Academia Española y el Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín (1745) del P. Larramendi", *II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*-ren agiriak (agertzeko).
- _____, 1999c, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*, EHUaren doktorego tesia (prestaketan).
- Urkizu, P., 1989, *Pierre d'Urteren hiztegia. Londres 1715*, (2 lib.), Mundaiz, Donostia.
- Villasante, L., 1979, *Historia de la Literatura Vasca*, 2. arg. berrikusi eta osatua, Editorial Aranzazu, Burgos.
- Vinson, J., [1891-1898], *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Berrarg. faks. J. Urquijoren oharrekin (*ASJU*-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- Viscardi, A., Vitale, M., Finoli, A. M. & Cremonesi, C., 1959, *Le prefazioni ai primi grandi vocabolari delle lingue europee. I. Le lingue romanze*, Instituto Editoriale Cisalpino, Milano/Varese.